

# Gradu Amaierako Lanean zeharkako gaitasunak lankidetzeta-dinamiken bidez garatzeko eta era jarraituan ebaluatzeko gida



Olaia Martínez, Jonatan Miranda, Fernando Sarrionandia, Edurne Simón, Itziar Txurruka, Amaia Saracibar, Iñaki Etaio, Arrate Lasa, Diego Rada, Idoia Labayen

eman ta zabal zazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

**Gradu Amaierako Lanean zeharkako  
gaitasunak lankidetzeta-dinamiken  
bidez garatzeko eta era jarraituan  
ebaluatzeko gida**

Olaia Martínez, Jonatan Miranda,  
Fernando Sarrionandia, Edurne Simón,  
Itziar Txurruka, Amaia Saracibar,  
Iñaki Etaio, Arrate Lasa,  
Diego Rada, Idoia Labayen

Itzultzailea: Gilen Mejuto

*CIP. Unibertsitateko Biblioteka*

**Gradu** Amaierako Lanean zeharkako gaitasunak lankidetzadynamiken bidez gartzeko eta era jarraituan ebaluatzeko gida [Recurso electrónico] / Olaia Martínez ... [et al.] ; itzultzailea, Gilen Mejuto. – Datos. – Bilbao : Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea, Argitalpen Zerbitzua = Servicio Editorial, [2017].

1 recurso en línea: PDF (63 p.)

Modo de acceso: World Wide Web.

ISBN: 978-84-9082-723-9

1. Tesis y disertaciones académicas - Metodología. 2. Aprendizaje - Evaluación. 3. Educación basada en la competencia. 4. Enseñanza universitaria – Innovaciones. I. Martínez, Olaia, coaut. II. Mejuto, Gilen, trad.

(0.034)001.81

(0.034)378

## ATARIKOA

Hezkuntza Berrikuntzarako Proiektu baten barruan burututako esperientziaren emaitza da argitalpen hau. Delako proiektua Euskal Herriko Unibertsitate Publikoaren (UPV/EHU) Hezkuntzarako Laguntza Zerbitzuak finantzatu zuen. Proiektuan, diziplina anitzeko irakasle talde bat aritu zen, hainbat profiletako pertsonak osatutakoa (geologia, osasun publikoa, elikagaien teknologia, nutrizioa, bromatologia eta fisikokimika), eta helburua izan zen metodologia aktibo bat garatzea, gero Gradu Amaierako Lana (GrAL) egiteko prozesuari aplikatzekoa. Irakasgai hau komuna izaten da unibertsitate-gradu gehienetan, eta lanbidean hasi aurreko etapan garatzen da. Gainera, aukera ezin hobe da graduatuko diren pertsonak sakondu eta finkatu ditzaten titulazio bakoitzeko ikasketa-planetan jasotzen diren zeharkako gaitasunak. Proposamen metodologikoa garatzeko orduan, ikasleek zeharkako gaitasunak eskuratzeko prozesua izan zen ardatz nagusia. Hona zeharkako gaitasun horietako batzuk: hausnarketa eta kritika egiteko ahalmena, ahozko eta idatzizko komunikaziorako trebetasuna, taldean lan egiteko ahalmena eta iturri bibliografikoen erabilera egokia.

GrALerako proposamen metodologikoak erreferentziatzen du elementu bat ohikoa izaten dena irakasgai honek ikasketa-zentro eta unibertsitateetan duen planteamenduan: ikasle bakoitzak bere proiektua aurkeztu eta defenditu beharko du epaimahai baten aurrean. Hala ere, berrietasun nagusia aurretiko faseetan ezarri da: defentsa aurreko etapak sendotzen dira, GrAL osoan zehar ikasle bakoitzaren lan jarraitua eta mailakatua sustatuz. Helburua hau da: ikasleak gogoeta-lana egitera bultzatzea goiko paragrafoan aipatu diren zeharkako alderdien inguruan, horretarako tresna kooperatiboak erabilita.

Gida honek hiru atal ditu. Lehenak proposamen metodologikoa kokatzen du Europako Goi Hezkuntzako Espazioaren testuinguruan, eta hainbat aurrekari azaltzen ditu Gradu Amaierako Lanean ebaluazio jarraituan oinarritutako metodologia parte-hartzaileen inplementazioa justifikatzeari begira. Bigarren atalean

proposamen metodologiko honek abiapuntu duen Hezkuntza Berrikuntzarako Proiektua deskribatzen da. Halaber deskribatzen dira diziplina anitzeko parte-hartzea eta haren garapenaren faseak. Azkenik, hirugarren atalean, jarduera zehatzak proposatzen dira, bai eta horien sekuentziazioa GrALaren irakasgaien zehar. Jarduera gidatuak badira ere, ikasleek autonomia-maila batekin hartzen dute parte. Edonola ere, jarduerok kolaborazio-osagai sendoa dute: batzuetan, gradu bereko ikasleen arteko lankidetzaren bidez; bestetan, gradu ezberdinetako ikasleen artean. Azken atal horretan ematen dira ataza bakoitzari buruzko xehetasunak, horietako bakoitzaren aurkezpena egiteko era eta horiekin lotutako ebaluazio-irizpideak.

Gida honetan jasotako oinarri metodologikoen bidez, GrALerako irakaskuntza-planteamendu berrien zimenduak finkatu nahi dira, betiere ikaskuntza jarraituan funtsatutako oinarri parte-hartzaile eta eraikitzaile batetik. Horrez gain, eskema irekia da, eta, horrenbestez, kontuan hartzeko modukoa ezaugarri ezberdinetako hainbat titulaziotan. Dokumentu hau unibertsitate-komunitatearen esku jartzen da, edonork deskargatu eta ikusteko moduan, proposamenean interesatuta dauden irakasle talde guztiek bera kontsultatuzeko aukera izan dezaten.

# AURKIBIDEA

## LEHEN ATALA

### *GRADU AMAIERAKO LANA ETA ZEHARKAKO GAITASUNAK*

<b>1.1. SARRERA</b>	2
<b>1.2. ZER DA GRADU AMAIERAKO LANA?</b>	3
<b>1.3. DIMENTSIOK</b>	5
<b>1.4. ZUZENDARIAREN EGINKIZUNA</b>	6
<b>1.5. EBALUAZIO-IRIZPIDEAK</b>	6
<b>1.6. GRADU AMAIERAKO LANA EGIN BITARTEAN ZEHARKAKO GAITASUNAK GARATZEKO ESTRATEGIAK</b>	9

## BIGARREN ATALA

### *HEZKUNTZA BERRIKUNTZARAKO PROIEKTUA*

<b>2.1. TESTUINGURUA</b>	13
<b>2.2. PROIEKTUAREN GARAPENA</b>	15

## HIRUGARREN ATALA

### *JARDUERA AKTIBO ETA KOOPERATIBOEN APLIKAZIOA GRADU AMAIERAKO LANEAN ZEHARKAKO GAITASUNAK GARATZEARI BEGIRA*

<b>3.1. METODOLOGIA ETA TRESNAK</b>	18
<b>3.2. KRONOGRAMA: BILERAK ETA ATAZAK</b>	23
<b>3.3. JARDUERAK, ENTREGAGAIK ETA ERRUBRIKAK</b>	24
<b>3.4. METODOLOGIAREN EZARPENAREN BALORAZIOA</b>	42

## BIBLIOGRAFIA

## ERANSKINAK

# **LEHEN ATALA**

## **GRADU AMAIERAKO LANA ETA ZEHARKAKO GAITASUNAK**

## 1.1. SARRERA

Europako Goi Hezkuntzako Espazio berria da, gaur egun, Europako unibertsitateek eskainitako titulazioen erreferentzia-markoa. Marko berri horrek irakaskuntzaren lehengo edukien eta metodologiaren egokitzapena egitea eskatu du eta, beste aldaketa batzuen artean, barne hartzen du graduatu berriek titulazio bateko irakasgai bakoitzean eskuratuko dituzten gaitasunen espezifikazioa.

Ikasitako irakasgaiek berezkoak dituzten gaitasun espezifikoez gain, titulazio bakoitzak bermatu behar du zeharkakoak esaten zaien beste gaitasun batzuk ere eskuratzen direla. Azken horiek titulazioaren eduki propioez harago doaz, baina funtsezkoak dira lanbidean bete-betean aritzeko. Besteak beste, honako gaitasun hauek sartzen dira: gai jakin bati buruzko informazioa era eraginkorrean bilatzea, ideia bat argudioekin defenditzea, gai jakin bat ahoz azaltzea modu egokian, argudio teknikoak emateko ahalmena agertzea, oroitidazki bat behar bezala idaztea eta gai jakin baten inguruko pentsamendu kritikoa eraikitzea.

Zeharkako gaitasun bakoitza era mailakatuan eskuratu behar da, ondoz ondoko ikasturteetan zehar. Hala, horiek landu eta ebaluatzeko, beharrezkoa da koordinazioa egotea titulazioan zehar: koordinazio horrek bermatuko du gaitasunok progresiboki erdiesten direla harik eta titulua lortzen den arte. Horrenbestez, irakasgai bakoitzaren irakaste-estrategiek elkarren osagarri izan behar dute, aipatu diren zeharkako alderdiak arrakastaz eskuratzea ahalbidetzeko.

Inolako dudarik gabe, Gradu Amaierako Lana (GrAL) prestatzea eta/edo defenditzea izaten da une erabakigarri bat non ikasleek demostratu behar duten aipatutako gaitasunak eskuratu dituztela. GrALa derrigorrezko irakasgaia da, eta hala xedatzen da unibertsitate-ikasketa ofizialak Europako Goi Hezkuntzako Espazioaren testuinguruan erregulatzen dituzten arauetan. 1393/2007 Errege Dekretuak, 861/2010 Errege Dekretuaren bidez aldatutakoak, hau ezartzen du III. Kapitulan, non hizpide diren



Graduko ikasketa ofizialak: *“ikasketa horiek Gradu Amaierako Lan bat egin eta defenditzean bukatuko dira”*; beste atal batean honako hau eranstean du: *“Gradu Amaierako Lana 6 kreditutik 30 kreditura izango ditu, ikasketa-planaren azken fasean egin beharko da eta tituluarekin lotutako gaitasunak ebaluatzerantz bideratuta egon beharko du”*. Hala ere, gauzatu eta ebaluatzeko prozesuari dagokionez, ez da xedapen gehiagorik ezartzen, eta, ondorioz, unibertsitate bakoitzak, duen autonomiaz baliaturik, bere irizpideen arabera arautu ahal izango du.

Gaur egun, fakultate edo unibertsitate-eskola bakoitzak GrAL programa propioa dauka garatuta, eta bertan zehazten dira titulazio bakoitzak izan behar dituen ezaugarriak eta haren ebaluazio-irizpideak. Bai GrALaren ikasleak zuzentzen dituen pertsonak (hemendik aurrera, Zuzendari esango diogu), bai GrALA ebaluatzen duen Epaimahaiak (egonez gero), ebaluazioa egitean, aintzat hartuko dituzte titulazioaren irakaskuntza-gidan (GrALerako) jasotzen diren zeharkako eta berariazko gaitasunak. Kasurik gehienetan, ikasleari eskatzen zaio gaitasun horiek eskuratu dituela frogatzeko, idatziz zein ahoz, GrALA egin, aurkeztu eta defenditu bitartean. Oro har, azken etapa hori ebaluazio-batzorde baten aurrean gauzatzen da, zeina hiruzpalau irakasleek osatzen duten.

GrALak ikasketa-planen ardatz nagusitzat proposatu izan dira, moduluak –edukien arabera taldekatutako irakasgaiak– integratzeko tresna gisa erabiltzen baitira eta ikasleei ikaste-erperientzia integralagoa eskaintzen baitiete.

## **1.2. ZER DA GRADU AMAIERAKO LANA?**

Aldakortasun handia dago, diziplinaren eta herrialdearen arabera, gida honetan GrAL deritzoguna deskribatzeko erabiltzen den terminologian. Modu orokorrean, erreferentzia egiten dio ikaslea idazlan original bat egin eta defenditzeko zereginean inplikatzeko duen lanari, zeina testuinguru batean kokatuta egon behar duen. Graduko programaren azken etapari gauzatzen da, eta, beraz, ikastaldi osoan eskuratutako gaitasunak integratzen ditu.

Healey-k eta laguntzaileek (2013) egindako berrikuspen sakonari jarraiki, GrALak ikerkuntza akademikoan ardaztutako lan autonomoak izaten dira, non ikasle bakoitzak nolabaiteko aukeramena duen. Zientzia, teknologia, ingeniari-tza eta matematika alor batzuetan, adibidez, arrunta izaten da ikasleek beren GrALaren gaia aukeratu behar izatea gainbegiraleek onetsitako zerrenda batetik. Beste instituzio batzuetan, ordea, baliteke proiektuak estuki lotuta egotea fakultateko edo unibertsitate-eskolako langileen ikerkuntza-intereseekin, eta eskura dauden laborategi-baliabideen laguntza izatea. Azken horien kasuan, GrALa nabarmenki lotuta egoten da ikerkuntza-arloari.

GrAL gehienek problema edo arazo batean sakontzen dute, ikasleak bizitza profesionalera igarotzeko prestatu nahian. Horregatik, erabakigarria da gaia testuinguruan kokatzea eta beronen ahulgune eta indarguneen inguruko gogoeta egitea. Dena den, titulazio eta herrialde batzuetan badago beste aukera bat ere: lehenago ikasketa-planean jorratutako ideien eta ikasgaien sintesia nabarmentzea. Batera edo bestera, GrALak nahitaez bildu behar ditu ikasleek graduan zehar eskuratu dituzten berariazko eta zeharkako ezagutzak eta trebetasunak.

GrALek bildu behar dituzte kontrastatu eta eztabaidatu diren datuen gaineko hausnarketa, jarrera kritikoa eta etorkizunerako ikuspegia; ahaztu gabe datu eta iritzi horiek oinarri dituzten iturri bibliografikoek askotarikoak eta egokiak izan behar dutela.

GrALaren atalen deskripzio bateraturik ez badago ere, atal batzuk ohikoak izaten dira, hala nola helburuak, metodologia eta konklusioa. GrALak metodologia sistematiko eta zehatza izan behar du oinarrian: argi eta garbi azaldu behar da nola sistematika horren aplikazioak lanaren asmoak eta helburuak lortzea ahalbidetzen duen; lortutako konklusioak ere sartu behar dira.

Europako herrialde askoren kasuan, GrALaren azken formatua idatzizko dokumentu bereizia da, eta haren luze-laburra

irakasgaiaren kreditu kopuruaren arabera da (Nicholson eta lag., 2010). Artearekin, komunikazioarekin eta diseinuarekin lotutako zenbait diziplinatan, beste formatu batzuk erabiltzen dira, hala nola bideoak edo artelanak, gainerako arloetan ezohikoak izaten direnak.

Azkenekoz, gerta daiteke GrALaren ahozko aurkezpen argi eta eraginkorra egin behar izatea, entzuleria –sarritan, publiko-baten aurrean. Aurkezpen-formatu posibleen artean, nabarmentzekoak dira mintzaldi moduko aurkezpenak, Epaimahai ebaluatzaile baten aurrean egiten direnak.

### 1. Taula GrALaren dimentsio posibleak (Healey eta lag., 2013)

Nondik	Nora
Campusean oinarrituta	Komunitatean oinarrituta
Unibertsitatean gauzatua	Urrutiko ikaskuntza
Ikertzaile-prestakuntza	Bestelako irtenbide profesionalerako prestakuntza
Ikaslearengan zentratutako ikaskuntza	Emaitzan zentratutako ikaskuntza
Diziplina batean oinarrituta	Diziplina anitzekoa/-artekoa
Ikasleen proposamena	Zuzendariaren proposamena
Banakako lana	Taldeko lana
Autonomia	Proiektu handiago baten parte
Originala ikaslearentzat	Originala diziplinarako
Unibertsitateko entzuleria	Lanbideko entzuleria
Sakoneko analisisian enfasia jarrita	Ezagutzen / trebetasunen sintesian enfasia jarrita
Akademikoek egindako ebaluazioa	Profesionalek egindako ebaluazioa
Banakako gainbegiratzea	Binakako edo taldeko gainbegiratzea

### 1.3. DIMENTSIOAK

Gaur egun badira diferentziak GrALEk izan behar duten kontzepzioan, funtzioan, antolaketan eta azken formatuan, eta, ondorioz, heterogeneoa da lanaren definizioa. GrALen aniztasun hori 1. Taulan jasotzen da (taularen iturria: Healey eta lag., 2013), non laburbiltzen diren GrALEk izan ditzaketen dimentsio desberdinak.

Hainbat autorek proposatzen dutenez, ikasleek GrALaren metodologia eta formatua aukeratu ahal izatea da dimentsio-aniztasun horri heltzeko, modurik onena (Healey eta Jenkins, 2009; Jenkins eta lag., 2017).

#### **1.4. ZUZENDARIAREN EGINKIZUNA**

GrALa egiteko, ikasleek Zuzendari bat edo gehiago izaten dituzte. Horren edo horien eginkizuna ikasleei orientazioa, aholkularitza, prestakuntza, adorea eta sostengua eskaintzea da, beti gogoan izanik ikaslearena dela GrALaren autoretza, eta inoiz ez gainbegiralearena (MacKeogh, 2006). Egiaztatu da GrALen zuzendaritza positiboek ikasleen potentziala hobetzen dutela, konfiantza eraikiz eta independentzia sustatuz (Light eta Cox, 2001). Horrez gain, Zuzendariak ikasleen aztertzaile gisa jardun behar du, eta prestakuntzazko feedbacka eman ikaste-prozesuan zehar (MacKeogh, 2006). Hainbat autorek adierazten dutenez, litekeena da eginkizun horrek Zuzendarien gaineko presioa areagotzea ikasle asko gainbegiratu behar dituztenean, eta laguntza eta aholkularitza behar izatea eginkizun hori betetzeko, bestelako heziketa-moduetatik nabarmenki desberdina baita (Marshall, 2009).

#### **1.5. EBALUAZIO-IRIZPIDEAK**

Kontuan izanik GrALetako kalifikazioen aldakortasuna handia dela titulazioan zehar egindako beste lan batzuen aldean, zenbait autorek kalifikazio bikoitza erabiltzea sustatzen dute (Webster eta lag., 2001). Beste batzuen arabera, ordea, trinkotasun handiagoa erdiets daiteke kalifikazioetan baldin ebaluazio-irizpideen diseinu xehea egiten bada eta irakasle-taldeek aldian-aldian berrikusten badituzte irizpideok (Pathirage eta lag., 2007).

Edonola ere, funtsezkoa da GrALaren ebaluazio-irizpideek GrALerako definitutako helburuak izatea oinarrian, lanaren gauzatze-formatua kontuan hartu gabe: banakakoa, taldekoa, berrikuspen-lana, ikerlana, etab. Halaber, garrantzizkoa da

ikasleek ere, GrALa gauzatu aurretik, lanaren ebaluatzaileek erabiliko dituzten ebaluazio-irizpideak ezagutzea eta ulertzea. Adibide gisa, 2. Taulak erakustera ematen du Geografia eta Merkataritzako GrALetan erabilitako ebaluazio-irizpideen konbinazio bat. Irizpide horiek beste titulazio eta herrialde batzuen irizpideen kidekoak dira.

Zenbait arlotan, bereziki Kazetaritzan edo Artea eta Diseinuan, bereizketa egiten da emaitzen ebaluazioan erabilitako irizpideen eta produkzio-prozesuaren artean. Ikasgai horietan, maiz eskatzen zaie ikasleei beren sormenezko lanaren inguruan gogoeta egin dezatela kontuan hartuz ebaluazio-irizpideak eta erabilitako ikuspuntua eta forma (Healey eta lag., 2013). Bestela esanda, ebaluazioa jakintzaren azalpenean zentratzen da, bai eta norbere lana ulertzean eta testuinguruan kokatzeko ahalmenean.

**2. Taula** Geografia eta Merkataritzako GrAletan erabilitako ebaluazio-irizpideak (honako hauetan oinarritua: Hill eta lag., 2011; Hand eta Clewes, 2000; eta Nicholson eta lag., 2010)

<b>Fundamentuak</b>
• Originaltasunaren ebidentzia eta ideia-argitasuna.
• Helburuen argitasuna eta gaiaren identifikazioa.
• Literatura irakurri delako eta ezagutzen delako ebidentzia.
• Ikerketaren diseinuaren eta metodologiaren kalitatea.
• Diseinuaren eta metodologiaren gabeziak ezagutzea.
• Datuen kalitatea.
• Datuen aurkezpena, analisia, ebaluazioa, sintesia eta interpretazioa.
• Kontzientzia kontzeptuala eta ulermen teorikoa.
• Argudiaketa arrazoitua.
• Organizazio logikoa.
• Literaturaren testuinguruan kokatutako emaitza eta konklusio justifikatuak.
• Hala dagokionean, hobekuntzen proposamena eta ikerketa-garapen osagarriak.
• Gaia hautatzeko prozesurako eta ikerketarako gomendioak.
<b>Aurkezpena</b>
• Aurkezpenaren, hizkuntza-erabileraren eta mintzaira-egituraren estandarra.
• Terminologia akademiko konplexuaren erabilera.
• Material argigarrien integrazio koherentea.
• Komunikazioaren eta ideien argitasuna.
<b>Administratiboa</b>
• Prozesu administratiboekiko konpromisoa barne hartzen duen jokabidea.
• Arrisku eta kontsiderazio etikoen ebaluazioa.
• Baldintzak betetzea.
<b>Independentzia</b>
• Era autonomoan lan egiteko ahalmena.
• Iniziatiba pertsonalaren eta erantzukizunaren erakuspena.
• Jokabidea eta gaitasuna lan praktikoan.
• Kognitiboa, intelektuala, praktika eta trebetasun pertsonalak.
• ITK aplikazioen erabilera egokia eta zuzena.
• Gogoetatsua, norbere jarduna eta garapen pertsonala kritikoki ebaluatuz.
<b>“X” faktorea</b>
• Ahalmen kritiko frogagarria.
• Sormenezko pentsamendua.
• Sena eta berrikuntza.

ITK: Informazio eta komunikazio teknologiak

## **1.6. GRADU AMAIERAKO LANA EGIN BITARTEAN ZEHARKAKO GAITASUNAK GARATZEKO ESTRATEGIAK**

Sarreran adierazi bezala, unibertsitateko Graduek beren ikasketa-planean, ikasleen gaitasun espezifikoez gain, zeharkako gaitasun batzuk ere eduki behar dituzte kontuan, graduatuek, lanbidean zuzen jardungo badute, nahitaez eskuratu beharrekoak. Horren haritik, zenbait autorek (Rullán eta lag., 2010; Bonilla eta lag., 2012) gaitasun hauek definitzen dituzte esplizituki:

- 1) Antolatu eta planifikatzeko ahalmena.
- 2) Analisia eta sintesia egiteko ahalmena.
- 3) Arrazoiketa kritikoa.

Rullán eta lag.-ek (2010) detektatu zuten ia ez dela gaitasun sistemikorik kontuan hartzen Osasun Zientzietako Graduen GrALetan (ikertzeko trebetasuna, sormena, motibazioa, lan autonomoa). Era berean, ikusi zuten jakintza-adar horretan gaitasunen ebaluazioa irakasgaiaren azken fasean egiten dela nagusiki.

Martínez eta lag.-en (2015) seinalatzen zen posible litzatekeela GrALaren zeharkako alderdiak, graduetan komunak direnak hartuta, honako hauetan laburbiltzea: (1) Informazioaren bilaketa eta erabilpena, (2) Analisia, integrazioa eta sintesia, (3) Arrazoiketa kritikoa, (4) Taldeko lana eta pertsonarteko trebetasunak eta (5) Ahoz eta idatziz komunikatzeko trebetasunak.

Sarritan, unibertsitateko irakasleek ez dute tresnarik zeharkako gaitasunak irakasgai jakin batean garatu ahal izateko. Egoera hori larriagotzen da GrALen Zuzendarien kasuan, nahiz eta unibertsitate-irakasleen komunitateak ahaleginak egin dituen irakaskuntzarako tresnak eta metodologiak garatze aldera, bai eta gaitasun horiek ebaluatzeko metodoak ere, batez ere GrALari dagokionez (Rullán eta lag., 2010).

Premisatzat hartzen badugu GrALa titulazio bakoitzaren azken

fasean egiten dela, zeharkako gaitasunen eskuratzeko-mailak bere handiengan izan beharko luke une horretan. Hala ere, errealtateak erakusten bide duenez, ikasleek gabeziak dituzte gaitasunak eskuratzeko edo horiek erakusteko orduan (Bonilla eta lag., 2012). Irakasgai hau berri samarra da (graduako lehen tituluak 2008/09 ikasturtean hasi ziren Espainiako estatuko unibertsitateetan eta horiekin lotutako GrALen lehen defentsak 2011/2012 ikasturtean egin ziren), eta, hori dela eta, oraindik urriak dira GrALen eskuratutako gaitasunen emaitzak aztertzen dituzten lanak. Dena den, dauden ikerketek konpromiso hau partekatzen dute: modulu espezifikoak edo heziketa-jarduerak sortzea (Bonilla eta lag., 2012), bai eta zeharkako gaitasunak era jarraituan ebaluatzeko prozedurak ere, ikaste aktiboa eta taldeko prozedurak sustatuz (Rodríguez, 2011).

Kontuan harturik GrALetan sartzen diren gaitasunen zeharkakotasun nabarmena, ez litzateke koherentea idazlan bat eta/edo ahozko aurkezpen bat bakarrik ebaluatzea; ebaluaziorako bitartekoek eta tresnek bat etorri behar dute ebaluatuko diren gaitasunekin. Zenbait fakultatetan, gainera, plataforma birtual kontsolidatuagoak erabiliz, lanaren gauzatze-fasean parte harrarazi nahi diote Epaimahaiari, lanaren prestatze-prozesua monitorizatzeko asmoz; hala eginez, ebaluazio etengabeko metodoak erabiltzen dituzte (López eta lag., 2012). Esperientzia horiek guztiek ikaste-osagaia indartzearen alde egiten dute, GrALa beste irakasgai baten gisa ulertzen delarik, eta ez helburu ebaluatzaile huts baten moduan. Hala, besteak beste, honelako trebetasunak sustatzen dira: informazio-bilaketa eraginkorra, idatzizko testuetan formatu estandarizatuen erabilpena, proposamen baten ahozko defentsa eta argudio teknikoak emateko ahalmena.

Edonola ere, GrALa egin bitartean proposatzen diren ikaste-jarduerak ez dute inoiz oztopatu behar haren ezaugarri nagusiak, hots, ikasleak oroitidazkia prestatzean duen originaltasuna eta autonomia. Izan ere, GrALa marko ezin hobea da ikasleek elkarri eragin eta lagun diezaioten bakarkako lan bakoitza garatzeko orduan (De Lorenzo eta lag., 2005). Are gehiago, elkargune bat



izan daiteke, non hainbat diziplinatako ikasleek ikuspuntuak trukatzeko dituzten, batez ere zeharkako alderdien inguruan (Rodríguez, 2011). Helburua hau da: mundu profesionalean sartu eta berehala aurkituko dituzten egoeren antzeko beste egoera batzuk aurkeztea ikasleei. Jarduera horiekin edo antzeko helburua duen beste edozeinekin batera, kasuan kasuko ebaluazio-ekintza egokiak prestatu behar dira, ikasleen ikaste-prozesuaren motorra izan daitezen. Dena den, GrALean horrelako jarduerak inplementatzeko behar den koordinazioak graduko gainerako irakasgaietan baino handiagoa izan behar du.

## **BIGARREN ATALA**

### **HEZKUNTZA BERRIKUNTZARAKO PROIEKTUA**

## 2.1. TESTUINGURUA

Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) Farmazia Fakultatearen kasu zehatzean, GrALa gai jakin bati buruzko lana da, eta ikasle bakoitzak banaka eta autonomoki egin behar du. Lan hori Zuzendariak berrikusi eta ebaluatzen du, Epaimahai batek azken ebaluazioa egin baino lehen. GrALean jorratuko diren gaiek lotura izango dute delako titulazioan zehar irakatsitako ikasgai baten edo gehiagoren berariazko gaitasunekin. Horrez gain, barnean hartu behar ditu titulazioaren irakaskuntza-gidan jasotzen diren zeharkako gaitasunak. Horrenbestez, GrALaren Zuzendariak, ikasleari gaitasun horiek eskuratzen edo hobetzen laguntzeaz gain, horien eskuratze-maila ere ebaluatu beharko du.

GrALa egiten duen ikasleak trebetasun nahikoa erakutsi behar du ikasten ari den titulazioko gai jakin bati buruzko informazioa bilatu, hautatu eta aztertzean. Hala, gai horretan adituak diren entzuleek egiten dituzten galderen aurrean, ikasle hori iritzi arrazoitu bat emateko gauza izango da. Horretarako, pentsamendu kritikoa eta, aldi berean, sortzailea garatu behar du, eta, haren bidez, jorratutako gaiari buruzko iritzi oinarritua eraiki.

Beste aldetik, GrALaren barruan, ikasleak oroitidazkia prestatu eta entregatuko du, eta Zuzendariak eta Epaimahai batek oroitidazki hori ebaluatuko dute ahozko defentsaren aurretik. Oroitidazki horretan atal orokor hauek sartu ohi dira: azala, aurkibidea, laburpena, sarrera, garapena, konklusioak eta bibliografia. Edonola ere, ezinbestekoa izango da berrikuspen bibliografiko sakona egitea, eta, ondoren, informazioa era selektiboan bilatzea, beronen azterketa eta sintesia egitea eta erabilitako iturri bibliografikoak era egokian aipatzea. GrALak hainbat eginkizun har ditzake barnean, besteak beste, laborategiko lana, landa-lanak edo laginketak. Eskuarki, atal bat egongo da emaitzak arrazoiketa logikoa oinarri hartuta eztabaidatzeko, eta beste atal bat konklusioetarako.

Zuzendariaren zereginak pisu erabakigarria izaten du GrALaren garapenean. Hasiara batean, Zuzendariak ikasleari proposatu

behar dio (“proposamen gidatua”), edo harekin adostu (“proposamen librea”), jorratuko den gaia. Era berean, garatzen hasi aurretik, lanaren irispidea hitzartu behar dute, bai eta haren egitura eta eztabaidatuko diren puntu posibleak. Azkenik, behin GrALa idatzita, Zuzendariak oniritzia emango dio Epaimahaiaren aurreko defentsari eta lanaren txosten bat eta ebaluazio bat egingo ditu. Hortaz, Zuzendariak protagonismo nabarmena izaten du zeharkako gaitasunak eskuratu direla egiaztatzeko orduan.

Epaimahaiaren osaera eta funtzionamendua bat etorriko dira ikastegi bakoitzaren araudiarekin. GrALaren Epaimahaia osatzen duten pertsonen galderak egin ahal izango dituzte defentsa-jardunean zehar. Modu horretan, ebaluatzen diren zeharkako gaitasunek lotura izango dute, ez soilik idazmenaren eremuarekin, baita ere mintzamenarekin eta defentsa-jardunean azaldutako ideia jakinak aldezteko erabiltzen diren argudio teknikoekin. Defentsa-jardunean, ikasleak argi azaldu beharko ditu jorratutako gaiaren justifikazioa, helburuak, metodologia eta erdietsitako konklusioak. Epaimahaiak, bere aldetik, ebaluatu egingo ditu, ebaluazio-errubrika batzuei jarraituz, oroitidazkia eta defentsa-ariketa

Garrantzitsua da azpimarratzea ikasleek erabilgarri dauzkatela ebaluazio-errubrika horiek, hots, badakitela Epaimahaiak eta Zuzendariak zein irizpideri jarraituko dieten zeharkako gaitasuna ebaluatzeko orduan. Horri esker, ikasleek badakite gaitasun horiek eskuratzeak garrantzi handia duela etorkizunean izango duten lanbiderako.

Proposamen hau egiteko unean ezarrita dauden irakaskuntza-planen arabera, oroitidazkiaren ebaluazioa (azken notaren %50a balio duena) Zuzendariak egiten du nagusiki (oroitidazkiaren notaren %40), bai eta, nahiz eta neurri apalagoan, Epaimahai batek (oroitidazkiaren notaren %10); ahozko aurkezpena (azken notaren gainerako %50a), berriz, Epaimahaiak bakarrik ebaluatzen du (eta Zuzendaria ezin da horren parte izan)

## 2.2. PROIEKTUAREN GARAPENA

Gida honetan deskribatutako metodologia Hezkuntza Berrikuntzarako Proiektu batean zehar garatu zen, zeinean parte hartu zuten UPV/EHUko Farmazia Fakultateko zenbait irakaslek, unibertsitate horretako Hezkuntza Orientazioko Zerbitzuak sustatuta. Talde horretako irakasleak, jakintza-alor desberdinetatik etorriak, hainbat titulaziotan aritzen ziren (Farmazia, Giza Nutrizioa eta Dietetika, Elikagaien Zientzia eta Teknologia, eta Ingurumen Zientziak). Beraz, parte hartutako irakasleen zein ikasleen profila diziplina anitzekoa izan zen. Hezkuntza Berrikuntzarako Proiektua 2012/13 eta 2013/14 ikasturteetan zehar garatu zen, eta, horrenbestez, GrALerako bi deialdi arrunt barne hartu zituen. Hona ekimen horren helburu nagusiak: 1) irakaskuntza-ikaskuntza metodologia aktibo eta parte-hartzaileak erabiltzea, 2) GrALean zeharkako gaitasunen eskuraketa sustatzea, 3) GRALaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko lan-prozedura garatzea, eta, azkenik, 4) metodologia estandarizatzea, beste fakultate eta unibertsitate batzuetan sistematikoki inplementatzeko.

Hezkuntza Berrikuntzarako Proiektua bi ikasturtetarako programatu zen. Lehen ikasturtea (2012-13) esperientzia pilotu gisa planteatu zen eta ikasle talde txiki bati aplikatu zitzaion. Helburua lan-protokoloa prestatzea eta hasieran proposatutako metodologiari aurreneko doiketak egitea zen. Lehen ikasturte horretan, sistematika hori Giza Nutrizioa eta Dietetika Graduan soilik probatu zen, zeren Gradu horrek bakarrik baitzituen ikasleak titulazioko azken urtean. Hurrengo ikasturtean (2013-14), Ingurumen Zientziak eta Elikagaien Zientzia eta Teknologia Graduetako ikasleek ere hartu zuten parte. Farmaziako Gradua ekimen horretatik kanpo geratu zen, zeren, bost urteko gradua izanda, ez baitzen azken kurtsora iritsi 2014-15 ikasturtera arte.

Esperientzia pilotuak posible egin zuen proiektuaren hasierako planteamenduaren ahulguneak aurkitu eta zuzentzea. Modu horretan, diziplina anitzeko taldeak zenbait hutsune detektatu

zituen, hala nola online jarduerak optimizatzeko beharra, auto-ikaskuntzarako balio handia dute-eta (ikusi bilaketa bibliografikoa eta erreferentzien aipamena egiteko errekurtsoen adibidea, IV. Eranskinean). Prozesuaren hasieran zeharkako gaitasunen ebaluazioa egiteak erakutsi zuen integrazio-ahalmen handia zegoela oro har, baina baita ere ahalmen kritiko urria eta erreferentzia bibliografikoen erabilera okerra (bai kalitateari, bai formatuari zegokienez), eta horrek agerian jarri zuen ahalegin espezifikoko gehigarriak egiteko beharra zegoela alderdi horietan.

Gida honen 3. atalean xeheki azaltzen dira proposamen metodologiko honetan erabili diren behin betiko tresnak, bai eta metodologia hau aplikatu zen bi ikasturteetan lortutako emaitzen balorazio labur bat ere.

## **HIRUGARREN ATALA**

### **JARDUERA AKTIBO ETA KOOPERATIBOEN APLIKAZIOA GRADU AMAIERAKO LANEAN ZEHARKAKO GAITASUNAK GARATZEARI BEGIRA**

### 3.1. METODOLOGIA ETA TRESNAK

Atal honetan proposatuko ditugun tresnen helburua zera da: Zuzendariak ikaslea era jarraitu eta aktiboan gidatzea GrALA egiteko bidean. Planteamenduan, ikasleen lan autonomia zein kooperatiboa sartzen dira. Horregatik, beharrezkoa da koordinazio eraginkorra egotea, ikasleek lan kolaboratiboa antolatu ahal izan dezaten. Metodologia honen jomuga hau da: GrALaren gaitasunak eskuratzen laguntzea eta horien ebaluazio mailakatu eta progresiboa bideratzea.

#### LAN-METODOLOGIA

Funtsean GrALA aurrez aurrekoa ez denez, online tresna bat erabiltzen da, irekitasuna eta malgutasun didaktikoa duena, irakasleek eta ikasleek aktiboki parteka dezaten GrALA egiteko prozesua. Metodologia honen elementu zentralizatzailea Moodle plataformaren bidez irekitako ikasgela birtuala izan da, nahiz eta antzekoa den besteren bat erabil litekeen. Gida honetan, Moodle ingurunea aukeratu da arrazoi pragmatikoak direla eta. Izan ere, eremu ezaguna da hezkuntza akademikoan, bai ikasleentzat, bai irakasleentzat. Plataforma horrek koordinazio erraz, jarraitu eta kooperatiboa ahalbidetzen du norabide posible guztietan: ikaslea-ikaslea, irakaslea-ikaslea eta irakaslea-irakaslea. Planteatutako jarduerak fakultateak ezarritako hilabetetan zehar dira, lanaren gaia proposatzen denetik defentsa egiten den arte. Zehazki, gure testuinguruan, 6-7 hilabete iragaten dira Zuzendariaren esleipenetik lanaren defentsaraino. 3. Taulak erakusten duen egutegian, astetan antolatua jasotzen dira gida honek proposatzen dituen bilerak, jarduerak eta entregagaiak.

Metodologia honek hiru jarduera proposatzen ditu: bat, hasieran; beste bat, garapenaren erdialdean; azkena, amaieran. 4. Taulan erakusten diren jarduerak lotura dute kasu bakoitzean indartu nahi diren gaitasunekin. Gaitasun horietaz gain, proposatutako metodologia honetan pertsonarteko trebetasunak eta jarrera



kritikoa ere sartzen dira. 5. Taulan erakustera ematen dira entregagai bakoitzaren pisu espezifikoak eta agente ebaluatzailea.

**3. Taula** Metodologia honetan proposatzen diren bilera, jarduera eta entregagaien gutxi gorabeherako antolamendua.

Kronograma	Bilerak	Jarduerak	Entregagaiak
1. HILA	1. ASTEA	Zuzendaria esleitzea	
	2. ASTEA		
	3. ASTEA		
	4. ASTEA	1. BILERA	
2. HILA	5. ASTEA		
	6. ASTEA		
	7. ASTEA	GAIA PROPOSATZEA	Gaia aukeratzea
	8. ASTEA		
3. HILA	9. ASTEA	Iturri bibliografikoak ebaluatu eta GrALa egituratzea	1. ENTREGAGAIA
	10. ASTEA	2. BILERA (Feedback)	
	11. ASTEA		
4. HILA	12. ASTEA	Ikasleen arteko 1. jarduera kooperatiboa: eztabaida-foroa	2. ENTREGAGAIA
	13.-16. ASTEAK	3. BILERA (Feedback)	1. ENTREGAGAIA GARATUTA eskatzea
5. HILA			
6. HILA	17. ASTEA		
	18. ASTEA		BEHIN-BEHINEKO IDAZLANA
	19. ASTEA	4. BILERA	
	20. ASTEA		BEHIN BETIKO IDAZLANA
7. HILA	21. ASTEA		
	22. ASTEA	2. Jarduera kooperatiboa: ahozko aurkezpenak	3. ENTREGAGAIA
	23. ASTEA	GrALaren DEFENTSA matrikula arrunta	
	24. ASTEA		

**4. Taula** Proposatutako entregagai bakoitzean garatu diren zeharkako gaitasunak.

GAITASUNA	(1) Informazioa bilatu eta erabiltzea	(2) Analisia, integrazioa eta sintesia	(3) Arrazoi-keta kritikoa	(4) Talde-lana eta pertsonarteko trebetasunak	(5) (Idatziko eta ahozko) komunikaziorako trebetasunak
JARDUERA					
<b>Iturri bibliografikoen ebaluazioa</b> 1. Entregagaia (HASIERA)	X	X			
<b>Online foroa, GrALaren edukien egiturari eta ikuspegiari buruz 2.</b> Entregagaia (JARRAIPENA)		X	X	X	X
<b>Ikasleen arteko truke kooperatiboa ahozko aurkezpenerako (lineaz kanpo).</b> 3. Entregagaia (AZKENA)		X	X	X	X
<b>Behin betiko oroitidazkia entregatzea*</b>	X	X	X		X
<b>Epaimahai ebaluatzailearen aurrean egindako defentsa*</b>		X	X		X

\*Jarduera horiek dagoeneko zeuden sartuta, GrALa garatu eta ebaluatzeko, proiektu hau planteatzean.

Orain, labur deskribatuko da entregagai horien izaera, eta "entregagaiak eta errubrikak" atalean entregagaiok egiteko jarraibideak zehaztuko dira, bai eta horietako bakoitza ebaluatzeko irizpideak. Gogoan hartu behar da ezen proposamen honetan deskribatutako ebaluazio-sistema Fakultateak ezarritako irizpide ofizialetara egokitu zela. Hala, ulertu behar da ezen

agente ebaluatzaile bakoitzaren pisu espezifikoa, bai eta ehunekoan banaketa, bestelako testuinguruetara egokitu daitekeela. Nolanahi ere, gure ikuspegiaren arabera, hiru alderdi bete behar dira baldin era egokian garatuko bada gure proposamen metodologikoa. 1) ebaluazio jarraitua aplikatzea, 2) jarduera kolaboratiboari pisu handia ematea, eta 3) azken ebaluazioari pisu gutxiago ematea eta Zuzendariari presentzia gehiago ematea GrALa garatu bitartean.

**Lehen entregagaia:** online aurkeztuko den ariketa honetan, txantilo bat beteko da eta Moodle plataformara igo. Txantilo horretan, ikasleek gai izan behar dute aurretiko ideia argi eta koherentea (landua) helarazteko, beren GrALean jorratuko dituzten gaien eta antolaketaren inguruan. Entregagai horrek azken notaren %5 balioko du (5. Taula).

**Bigarren entregagaia:** jarduera kolaboratibo hau diseinatuta dago ikasle bakoitzak bere lanaren ezaugarriak (izenburua, helburuak) foro batean esplikatu dituzten. Bertan sartuko du, gainera, lanaren garapenerako planteatzen duen eskema egituratua. Eskema honek lehen jardueran jasotako feedbacka islatuko du. Ataza honen bidez, Gradu bereko ikasleen arteko elkarrekintza lortu nahi da. Hala, ikasleok eztabaidatu beharko dute beren jakintza-arloaren berariazko ezagutza teknikoaz. Entregagai horrek azken notaren %10 balioko du (5. Taula).

**Hirugarren entregagaia:** jarduera kolaboratibo honetan, ikasleek ahozko aurkezpenak egingo dituzte taldeko beste ikasle batzuen aurrean. Kontuan harturik ahozko defentsaren pisua azken notaren %50a dela, ataza honek garrantzia handia du. Bertan, Gradu desberdinetako ikasleen arteko ahozko aurkezpenak dira elementu zentralak. Helburua pertsona ezezagunen arteko elkarrekintza bultzatzea da. Hala irudikatuko den egoera Epaimahaiaren aurrean gertatuko denaren antzekoa izango da, ahal den neurrian. Entregagai horrek azken notaren %10 balioko du (5. Taula).

Hiru entregagai horien laguntzaz zera lortzen da: alde batetik, oroitidazkia kalitate handiagokoa eta landuagoa izatea, eta beste aldetik, irakaskuntza-prozesua lan kooperatiboan

oinarritzea. Lan kooperatiboak laguntzen du ahozko defentsaren prestaketan eta gaiari buruzko galderen aurrean argudio logikoak erabiltzeko zereginen.

**5. Taula** Entregagai bakoitzaren pisu espezifikoa GrALaren azken notan.

<b>EBALUAGARRIA</b>	<b>AZKEN NOTAREN % (agente ebaluatzailea)</b>
<b>1. Entregagaia</b>	5 (Zuzendaria)
<b>2. Entregagaia</b>	10 (Zuzendaria)
<b>3. Entregagaia</b>	10 (Zuzendaria)
<b>Idazlana</b>	15 (Zuzendaria)
	10 (Epaimahaia)
<b>Ahozko defentsa</b>	50 (Epaimahaia)

Bada, bistan denez, **laugarren entregagai** bat, hau da, oroitidazkia bera, Fakultatearen protokoloak ezartzen duenaren arabera. Oroitidazkiaren kalifikazioak azken notaren %25 balio du: %15 Zuzendariak emana eta beste %10a Epaimahaiak emana (5. Taula). Bi kalifikazioak aurrezarritako ebaluazio-matrize ofizialen arabera finkatzen dira, eta entregagai eta errubriken atalean aurkezten dira. Entregagaiak elkarren segidan eginez eta ikasleekin feedback etengabea edukiz, inkoherentziako errakuntzak saihestu ahal dira oroitidazkiaren lanketan; hala, azken orduko arazoak ekiditen dira. Nolanahi ere, garrantzizkoa da gogoratzea Zuzendariak ahalik eta parte-hartzerik txikiena izan behar duela oroitidazkia zuzentzeko lanetan, eta oharpen zehatzak baino ez duela egin behar, nagusiki, kontzeptu edo paragrafo jakin batzuen adierazpidean hobekuntzak egiteari buruzko oharpenak (alderdi gramatikalak). Edukia, antolaketa eta egitura edo edizio formala direla medio planteamendu okerrak daudenean atal oso baten oinarrian, ez da inola ere izango Zuzendariaren egitekoa atal hori berreditatzea.

### 3.2. KRONOGRAMA: BILERAK ETA ATAZAK

3. Taulak erakustera ematen ditu gida honetan proposatzen diren gutxieneko bilerak eta entregagaiak. GrALaren gaia proposatzen denetik defentsa egiten den arte, gerta daiteke ikaslea Fakultatetik kanpo egotea, enpresetan edo bestelako zentroetan praktikak egiten, eta horregatik beharrezkoa izaten da denboraldi horretan komunikazio zalua egotea, GrALaren garapen eraginkorra bermatzeko. Proposamen metodologiko honen esparrutik kanpo, segimenduko bi bilera proposatzen dira, aurrez aurrekoak, 3. Taulako kronogramako lehen eta azken bilerekin batera egitekoak. Orain, metodologia honetan proposatutako bileren edukiak azalduko dira.

#### LEHEN BILERA

Lehen bilera aurrez aurrekoa da, eta gaia proposatzeko muga-egunaren aurreko hiru asteetan egingo da (3. Taula). Funtsezko bilera da, nahitaez egin beharrezkoa, zeren diseinatuta baitago ikasleak GrALaren tamaina eta garrantzia uler ditzan. Lehen bilera honetan jorratu beharreko puntuak hauek dira:

1. Ikasle bakoitzari ikastegiak ematen duen informazioa helaraztea: irakaskuntza-gida, entrega-epeak, defentsaren data, webgunean erabilgarri dagoen informazioa, etab.
2. GrALean jorratuko den gaia adostea.
3. GrALa prestatu eta ebaluatzeko prozesuan erabiliko den metodologia azaltzea: jarduerak, entregagaiak eta materialak.
4. Online plataforma erakustea, zeina erabiliko den proposatutako jardueren segimendua egiteko.
5. Lehen entregagaien egin beharreko atazak deskribatzea.
6. Metodologia honi dagokion lehen inkesta (online) bete dezatela gogoraraztea (ikus III. Eranskina).

## **BIGARREN BILERA**

Lehen entregagaia bidali eta Zuzendariak hura berrikusi (3. Taula) eta astebetera, gutxi gorabehera, bigarren bilera egingo da. Bilera hori aurrez aurrekoa izango da ikasleak bertaratzeko aukera baldin badu, bestela ez. Hauek izango dira bileraren helburuak:

1. Lehen entregagaiari buruzko feedbacka ematea eta proposatutako lanaren egitura koherentea den aztertzea.
2. Bigarren entregagaia azaltzea eta foroan parte hartzera bultzatzea, horretarako jarraibideak emanez.

## **HIRUGARREN BILERA**

Bigarren entregagaia entregatu eta zuzendu ondoren (online foroan), hirugarren bilera egingo da (aurrez aurrekoa edo ez), eztabaida-foroan izandako parte-hartzea komentatzeko. Foroan jasotako aldatetarik eta iradokizunen gaineko hausnarketa egin ondoren, ikasleari eskatuko zaio ezen, lehen entregagaia abiapuntu hartuta, 7-10 orri inguruko oroitidazkia egin dezala. Bermatu behar da lanak, beronen garapenean aurrera egin ahala, koherentzia har dezala.

## **LAUGARREN BILERA**

Idazlana entregatu baino astebete lehenago izango da laugarren bilera (3. Taula). Ikasleak Zuzendariarekin komentatu ahal izango du oroitidazkia, zeinak ia amaituta egon beharko duen ordurako.


### **3.3. JARDUERAK, ENTREGAGAIK ETA ERRUBRIKAK**

Atal honetan xeheki deskribatzen dira Metodologia honetan proposatu diren entregagai guztiak, bai eta ebaluazio-errubrikak ere. Azpimarratu behar da bigarren eta hirugarren entregagaiak jarduera kolaboratiboak direla. Bigarren jardueran, Gradu bereko

ikasleek interakzioan dihardute; hirugarren jardueran, berriz, Gradu desberdinetako ikasleek hartzen dute parte. Horrek alderdi berritzailea dakar GrALaren ohiko planteamenduaren aldean.

### LEHEN JARDUERA

Lehen entregagaia dokumentu labur bat taxutzean datza (2 orrialdekoa). Jorratu beharreko gaia jasoko du dokumentuak, eta modu argi, koherente eta ordenatuan laburbilduko ditu, aurkibide batean, lanean tratatuko diren puntuak. Dokumentu horretan proposatutako gidoia garatzeko kontsultatu den bibliografia ere jasoko da eta beronen hautapena justifikatuko da.



**1. Irudia** Ikasleari online plataforman eskainitako informazioa, lehen entregagaia egin dezan. Urdinez markatutako hitzak Moodle-ko hiperestekak dira, eta horiekin lotutako dokumentuek formatu editagarria dute, bete beharreko txantiloiak izanez gero, edo pdf formatua.

**6. Taula 1. Errubrika (R1), lehen entregagaia ebaluatzeko.**

LEHEN ENTREGAGAIA EBALUATZEKO ERRUBRIKA (R1)				
KATEGORIA	4	3	2	1
INFORMAZIO-KOPURUA	10 erreferentziatik gora aurkitu ditu.	5-10 erreferentzia aurkitu ditu.	1-5 erreferentzia aurkitu ditu.	Ez du erreferentziarik aurkitu.
INFORMAZIOAREN EGOKITZAPENA	Informazioa estuki lotuta dago kasu edo proiektuarekin, eta antzeko kasuen adibideak aurkitu ditu.	Informazioa partzialki lotuta dago, eta proposatu dituen adibideak ez daude estuki lotuta.	Informazioa partzialki lotuta dago, eta ez du adibiderik proposatu.	Informazioak ez du zerikusi handirik, edo batere, planteatutako kasuarekin.
ITURRIEN KALITATEA	Ikasleak iturri zientifiko-teknikoak erabili ditu, eta horietan informazio orokorra zein espezifikoa aurkitu du.	Ikasleak iturri zientifiko-teknikoak erabili ditu, eta horietan informazio orokorra aurkitu du.	Iturri dibulгатiboak erabili ditu (prentsa, aldizkariak, kalitate txikiko webguneak).	Ez du ezer aurkitu.
ITURRIEN ERABILERA JUSTIFIKATZEA	Iturri guztien erabilera justifikatu du, bai eta horien aplikazioa GrALean.	Iturri batzuen erabilera justifikatu du, bai eta horien aplikazioa GrALean.	Ez daki iturrien erabilera justifikatu, ez eta horien aplikazioa GrALean.	Ez daki justifikatu, ezer aurkitu ez duelako.

Lehen jarduera honen planteamendua behin prestatu ondoren, irakasleari aurkeztuko zaio lehen bileraren egunean. 1. Irudiak erakustera ematen du lehen entregagaiaren aurkezpena plataforma birtualean. Ikasleak 4 aste izango ditu (ikus 3. Taula) lehen entregagaia prestatzeko. Denbora nahikotzat jotzen da iturri bibliografikoak miatu eta horien hautaketa egiteko. Denbora hori igarota, lehen entregagaia aurkeztu beharko du, ikasgela birtualean erabilgarri dagoen txantiloiaz baliatuta. Zuzendariak, bere aldetik, lehen jarduera honi buruzko feedbacka emango du; ebaluaziorako, R1 errubrika erabiliko du (6. Taula), zeina aldeztu aurretik emango zaien ikasleei. Ebaluazio-errubrika eskura izanda, ikasleek modu konkretuan ezagutu ahal izango dituzte, ataza egin aurretik, ebaluazio-irizpideak. Lehen entregagai honi dagokion errubrikaren bidez alderdi hauek



ebaluatuko dira: 1) kontsultatutako iturrien kopurua, 2) iturrien egokitasuna lanaren gaiarekiko, eta 3) iturrien kalitatea eta 4) iturri bibliografikoen erabileraren justifikazioa.

<p><b>I. ENTREGAGAIA</b></p> <p><b>Ikasleen ekarpenak jasotzeko taula</b></p> <hr/> <p>DATA:</p> <p>IKASLEA</p> <p>GRAL-AREN IZENBURUA:</p> <p>Ikasleak proposatzen duen lanaren egitura (edukiak, ordena, atal bakoitzaren garrantzi erlatiboa ...):</p> <p>Justifikazioa:</p>	
Ikasleak bilatu dituen iturri bibliografikoak /	Justifikazioa (Iturri bakoitzaren aukeraketa irizpideak)

**2. Irudia** Lehen entregagaia egiteko bete beharreko txantiloia.

**BIGARREN JARDUERA**

Bigarren jarduera eztabaida-foro batean datza. Bertan, ikasleek ideiak partekatuko dituzte, eta pentsabide kritikoa garatuko, metodologia honetan parte hartzen duten gainerako kideekin. Jarduera kolaboratiboa da, Gradu bereko ikasleek gauzatu beharrekoa. Izan ere, jarduera honetan eztabaidatuko dira titulazio jakin bati dagozkion GrALaren eduki espezifikoak. Behin feedbacka Zuzendariarekin eginda eta erabiliko diren aurkibidea eta bibliografia adostuta, ikasleek astebeteko epea izango dute (11. Astea; 3. Taula) beren lehen entregagaia zuzentzeko eta, plataforma birtuala erabiliz, gainerako ikasleen esku jartzeko.

Une horretatik aurrera, beste aste bat dute (12. Astea; 3. Taula) ikasleen foroan parte hartzeko. Horretarako, haien esku jartzen da jarduera honi buruzko informazioa (3. eta 4.

Irudiak), bai eta haren ebaluazio-errubrika ere (R2; 7. Taula).  
3. Irudiak erakustera ematen du jarduera honen aurkezpena ikasgela birtualean. Funtsean, jarduera honen helburua da ikasle bakoitzak xeheki azter ditzala bere gainerako ikaskideen lehen entregagaiak. Azterketa hori egin ondoren, iritzi kritiko eta funtsatua eman beharko du lehen entregagaiaren hainbat alderdiri buruz (originaltasuna, koherentzia, zehaztasuna, iturri bibliografikoekiko egokitasuna, etab.). Era berean, bere kideek aurkeztutako beste proposamenen gaineko galderak egin beharko ditu, eta iruzkinak edo iradokizunak gehitu. Hitz batez, parte aktiboa hartu beharko dute foroan, eta jarrera kritikoa erakutsi. Horretarako, "Parte Hartzeko Gida" dute (4. Irudia), non foroan jasotako ekarpenak aztertzean kontuan hartu beharreko zenbait alderdi deskribatzen diren. Gainera, ikasleek material didaktikoa izango dute eskura, zehazki jakin dezaten zer-nolako parte-hartzea espero den haiengandik jarduera honetan (II. Eranskina).

Zuzendariak 2. Errubrikaren bidez (R2; 7. Taula) ebaluatuko dute jarduera hau, gogoan harturik ikasle bakoitzak foroan egindako parte-hartzeen kalitatea eta kopurua.

Hurrengo bi asteetan zehar (13. eta 14. asteak; 3. Taula), ikasle bakoitzak hausnartu beharko du jasotako iradokizunak eztabaida-forora eramateko aukeraz, eta GrALaren lehen zirriborroa egin beharko du (7-10 orrialde, gutxi-asko). Zirriborro hori Zuzendariak iruzkinduko du denboraldi horretan zehar. Behin Zuzendariaren oniritzia jasota, lau aste izango ditu (15.-18. asteak; 3. Taula), GrALaren oroitidazkia egiteko, eta 18. astea izango da oroitidazkia entregatzeko une izendatua. Zuzendariak hobekuntzarako azken proposamenak egin eta ikasleak horiek bere GrALean gehitu ahal izango ditu hurrengo asteetan (19. eta 20. asteak; 3. Taula).

Moodle TIC > MAK\_GAL 12/14 > Foros > 2. ENTREGABLE. Actividad cooperativa (I) / 2. ENTREGAGAIA. Jarduera kooperatiboa (I)

Mostrar respuestas por rama ▾

Ikasleek *online* eztabaida batean hartuko dute parte zeinetan GrAL-aren egitura eta eduki orokorren inguruko gaiak jorratuko diren. Parte-hartzaile bakoitzak ordura arte landutakoa (parte batean aurreko egunetan tutorearekin landutakoa) forora igoko du (doc/docx, pdf, ppt/pptx...) gainontzeko ikasleek ikus dezaten. Ikasle bakoitzak, erregulariki, gutxieneko ekarpen arrazoituak egin beharko ditu beste ikasleen lanei buruz eta, era berean, jasotzen dituen proposamenak bere lanera egokituko ote dituen hausnartu beharko du (ikus [errubrika](#)).

Foroko parte hartzea: martxoak 31tik apirilak 13ra (2 aste).

**Bigarren entregagaiaren ebaluazioa**

Tutoreak R2 errubrika erabiliko du aurkezten zaio lana baloratzeko.

Filtar | Arraz | Responder

**3. Irudia** Ikasleei online plataforman eskainitako informazioa, bigarren entregagaiaren inguruan. Urdinez markatutako hitzak Moodle-ko hiperestekak dira, eta horiekin lotutako dokumentuek formatu editagarria dute, bete beharreko txantiloiak izanez gero, edo pdf formatua.

**BIGARREN ENTREGAGAIA EGITEKO GIDA**

2. Entregagaiaren bidalketarako foroan, ikasle bakoitzak lanaren izenburua, helburuak eta egitura kargatuko ditu, eta egindako proposamenari buruzko iritzien zain egongo da. Hasierako mezuan, ikasle bakoitzak argiro adierazi beharko du zein Gradutan dagoen.

Parte-hartzaile bakoitzak Gradu bereko kideen ekarpen batzuk baloratuko ditu, aurretiko mezuei erantzunez. Besteen ekarpenak baloratzeko orduan, beherago markatzen den eskemari jarraituko zaio, bakoitzak jasotzen duen feedbacka ahalik eta osoena izan dadin.

Irizpide bakoitza 1etik 5era bitarteko eskala batean baloratuko da (1, "batere ez ados esaldiarekin"; 5, "erabat ados esaldiarekin").

OHARRA: Orri hau ez da paperezko formatuan bete edo entregatu behar.

Foroko testu-editorearen bidez, puntuazioa emango zaio (1 eta 5 artean) baloratzekoa den alderdi bakoitzari (1-7 itemak), puntuazio hori arrazoitzen delarik, eta 8-10 itemetan azaldutako kontuei erantzungo zaie. Horrez gain, emandako erantzunak ere arrazoitu beharko dira.

Irizpideak:

- 1- Planteamendu originala egin du
- 2- Ezarritako helburuak egokiak dira
- 3- Gaia modu orokorrean garatu da
- 4- Gaian islatutako ikuspegia egokia da
- 5- Eskema argi eta zehatza da
- 6- Eskemak garrantzizko gabeziaren bat du (adibidez, konturen bat ez da jorratu, baina jorratu beharko litzateke) edo ordena ez da aproposa
- 7- Proposamenaren izenburua, helburuak eta egitura koherenteak dira elkarren artean
- 8- Gaia ezagutzen baduzu, proposa ezazu iturri bibliografikoren bat  
.....
- 9- Aurreko puntuetan aipatu ez diren beste alderdi batzuei buruzko balorazioa  
.....
- 10- Hobetzeko iradokizunak  
.....

**4. Irudia.** Bigarren jarduera kooperatiboan parte hartzeko gida.

## 7. Taula 2. Errubrika (R2), bigarren entregagaia ebaluatzeko

IKASLEEN PARTE-HARTZEA FOROAN (R2)				
KATEGORIA	4	3	2	1
PROPOSAMEN KOPURUA	≥3	2	≥1	≥0
ERANTZUN KOPURUA	Jasotako proposamenen ehuneko honi erantzun dio: %76-100	Jasotako proposamenen ehuneko honi erantzun dio: %51-75	Jasotako proposamenen ehuneko honi erantzun dio: %25-50	Jasotako proposamenen ehuneko honi erantzun dio: %25 baino gutxiago
PARTE-HARTZEAREN MAIZTASUNA	≥3 egun	2	1	0
PARTE HARTZEKO GIDAN PROPOSATUTAKO PARTE-HARTZE ESKEMAREN FIDELTASUNA	1-7 puntuen alderdi guztiak aztertu ditu eta informazio nahikoa eman du 8-10 puntuetan	1-7 puntuen alderdi guztiak aztertu ditu, baina ez du informazio nahikorik eman 8-10 puntuetan	1-7 puntuen alderdi guztiak aztertu ditu, baina ez die erantzun 8-10 puntuei; ez du ekarpen esanguratsurik egin	Ez ditu aztertu 1-10 puntuak
PROPOSAMENEN KALITATEA	Proposamen guztiak justifikatu ditu	Proposamen batzuk justifikatu ditu	Ez ditu justifikatu bere proposamenak	Ez du justifikatu (ez duelako proposatu)
FOROKO BESTE PARTE-HARTZAILEREN BATZUEN PROPOSAMENEN INTEGRAZIOA	<b>Beti</b> justifikatu du edozein aukera, bai jasotako proposamenak GrALean integratzeari, bai ez integratzeari dagokienez	Hartutako aukera <b>batzuk</b> justifikatu ditu, bai jasotako proposamenak GrALean integratzeari, bai ez integratzeari dagokienez	Proposamen batzuk integratzea erabaki du, justifikatu gabe	Ez ditu proposamenak GrALean integratu, eta ez du bere aukera justifikatu

\*1-10 puntuak 4. Irudiko irizpide zerrendari dagozkio

## HIRUGAREN ENTREGAGAI

Hirugarren jarduera aurrez aurrekoa da, eta bertan hartzen dute parte zenbait ikasle taldek. Behin oroitidazkia aurkeztuta eta GrALaren defentsa-eskabidea burututa egiten da. Denborari dagokionez, defentsa baino bi aste lehentxeago kokatzen da (22. astea; 3. Taula). 5. Irudiak erakustera ematen du jarduera honen aurkezpena ikasgela birtualean. Atazari buruzko xehetasunak plataforma horretan emango dira, non ataza egiteko gida egongo den eskura. Bertan zehaztuko dira ikasleek prestatu behar

dituzten helburuak eta materiala (6. Irudia).

Jarduera honen helburu nagusia ikasleak Epaimahaiaren rolean jartzea da. Hala ohartuko dira zein garrantzitsua den ideiak, emaitzak eta konklusioak zuzen eta ahoz ematea, horretarako erabiltzen dutelarik jorratutako gaiak berezkoa duen hizkera teknikoa. Halaber, ikasle bakoitzak Epaimahaiaren galderei argudioekin erantzuteko gai izan behar du. Jardueran parte hartzen duten gainerako ikasleek osatuko dute Epaimahaia. Aurkezpenaren egokitasuna ere baloratuko da.

Gomendagarria da ikasgelan irakaslerik ez dagoelarik gauzatzea jarduera, ikasleek inolako presio erantsirik gabe jardun dezaten; hori hala izateko behar diren jarraibide guztiez dago hornituta jarduera hau. Dena den, bestelako gainbegiratze moduak ere aurreikus daitezke, hala nola bideo- edo audio-grabazioa, beharrezkotzat jotzen bada. Jarduera hau oso baliagarria da ikasleak hobeto ezagut ditzan bere GrALaren defentsa kalifikatzeko erabiliko diren ebaluazio-irizpideak. Izan ere, aipatu den bezala, erabiltzen duten errubrika berarekin kalifikatuko du Epaimahaiak aurkezpena.

Jarduera hau gauzatzeko, ikasle bakoitzak dokumentu hauek izango ditu eskura: 1) GrALen defentsan Epaimahaiak erabiltzen duen ebaluazio-errubrika (8. Taula), 2) galdera eta ekarpenen txantiloia (7. Irudia), eta, azkenik, 3) kritika eta ekarpenei erantzuteko justifikazioen taula (9. Taula).

Aurkezpena egiten den bitartean, Epaimahaiko ikasle bakoitzak idatziz jasoko ditu, bi aletan, ikaskideei egin dizkien galdera eta iradokizunak (7. Irudia). Hala, ikasle bakoitzak jarduera hau amaitzean jasoko du gainerako kideek ondutako dokumentuen kopia bat. Saioa bukatuta, ikasle bakoitzak Zuzendariari emango dio fitxaren beste kopia bat, non bilduko diren berak aurkezpen bakoitzaren aurrean egindako iradokizun edo ekarpenak. Amaitzeko, jasotako kritika eta ekarpenen inguruko hausnarketa egingo dute banaka. Ariketa egin ondoren, jasotako ekarpenetatik bere GrALean zein sartu erabakiko du. Bai onartutako, bai baztertutako iradokizunak idatziz argudiatu beharko dira, eta

horretarako 9. Taula erabiliko da (kritika eta ekarpenei erantzuteko justifikazioak). Zuzendariak taula hori jasoko du, Moodle bidez. Jarduera hau 3. Errubrikaren bitartez baloratuko da (10. Taula).

MoodleTIC ▶ MAK\_GAL 12/14 ▶ Tareas ▶ 3. ENTREGAGAIA. II. Jarduera kooperatiboa / 3º ENTREGABLE. II. Actividad cooperativa

Bigarren jarduera kooperatibo honen helburua zera da: beste ikasle batzuen lanak ikusi eta GrAL-a klase kideen aurrean aurkezteko aukera ematea. Era honetan, laster burutuko duzuen epaimahaiaren aurreko aurkezpen ofizialari begira iradokizunak jaso eta emateko aukera izango duzue. Deialdi ofizialaren aurretik lana publikoki aurkezteko aukera izango duzue eta ebaluazio irizpideei begira lana indartu ahal izango duzue.

Jarduera honi dagokion informazioa [parte-hartze gidan](#) topatuko duzue.

Erabili [txantilo](#) hau 2. Taula MoodleTIC-en bitartez igortzeko.

**5. Irudia** Ikasleei online plataforman eskainitako informazioa, hirugarren entregagaian aintzat hartzen diren alderdien inguruan. Urdinez markatutako hitzak Moodle-ko hiperestekak dira, eta horiekin lotutako dokumentuek formatu editagarria dute, bete beharreko txantiloak izanez gero, edo pdf formatua.



### HIRUGARREN ENTREGAGAIA EGITEKO GIDA

Hona jarduera kooperatibo honen helburua: ikasleok zeuon ikaskideen aurkezpenak ikusi eta aztertu ahal izatea. Era horretan, ideiak eta hobekuntzak jaso eta eman ahalko dituzue, zeuon Gradu Amaierako Lanaren (GrAL) aurkezpenari begira, zeina laster egingo duzuen Epaimahai baten aurrean. Deialdi ofizialaren aurretik, aukera izango duzue lana jendaurrean defenditzeko, bai eta Epaimahaiak egun horretan aplikatuko dituen ebaluazio-irizpideak berrikusteko eta kontuan hartzeko. Jarduera hau GrALaren defentsa ofiziala simulatzean datza, bere elementu eta aktore guztiekin: ikasleak, Epaimahaia, ikusleak (egonez gero), bete beharreko dokumentuak (errubrikak), denboren kontrola, galde-erantzunak, etab. Hori guztia ikasleen ardurapean. Zuzendariek hitza hartuko dute saioaren hasieran, jarraibide batzuk emateko eta sor litezkeen zalantzak argitzeko.

Parte-hartzaile bakoitza deialdiaren egunean eta orduan aurkeztu beharko da (bestela, gutxieneko nota hartuko luke jarduera honetan), eta berekin dakarrela behin betiko aurkezpena (edo ia behin betikoa), aukeratutako euskarrian (power-point, pdf...), eta jarduna prestatuta.

Ikasle bakoitzak, bere txandan, aurkezpena egingo du (15 minutu); bien bitartean, gainerako ikaskideek Epaimahai gisa arituko dira. Epaimahai horrek aurkezpen bakoitza baloratu beharko du, honekin batera doan errubrika oinarri hartuta. Ondoren, 10-15 minutu izango ditu aurkeztutako lanaren inguruko galderak eta ekarpenak egiteko. Rol horiek aurkezpen bakoitzean txandakatuko dira. Epaimahaikide bat denbora tartetarako zorrozki kontrolatzeaz arduratuko da. Puntuazio eta iruzkin guztiak behar bezala jaso beharko dira horretarako prestatutako erregistroetan.

a) Epaimahaikide bakoitzak banaka puntuatuko ditu aurkezpenak **ebaluazio-errubrikan**.

b) Epaimahaikide bakoitzak aurkezpen bakoitzean egin dituen **galdera eta ekarpenen erregistroa** beteko du.

c) Saioa amaitutakoan, aurkezle bakoitzak **kritika eta ekarpenei erantzuteko justifikazioen taula** beteko du. Parte-hartzaile bakoitzak 24 orduko epea izango du, jarduera amaitu eta gero, dokumentu hori

bere Zuzendariari entregatzeko.

a eta b dokumentuak/erregistroak Zuzendariei entregatuko zaizkie saioa amaitzean, eta c txantiloia 1-2 egun igarota, Moodle bidez. Ikasle bakoitzak jarduera honetan izandako parte-hartzea ebaluatzeko, gida honekin batera doan errubrika erabiliko da. Horretarako, aintzat hartuko dira beste GrAL batzuen inguruan egindako galderen batezbestekoari dagozkion irizpideak eta kalitateari buruzko iruzkinak, bai eta jasotako proposamenak norbere GrALean sartu edo ez sartu izana justifikatzeko gaitasuna.

**6. Irudia** Hirugarren entregagaia egiteko gida, plataforma birtualean eskuragarri.

8. Taula Hirugarren entregagaia egiteko ikasleek erabiltzen duten errubrika.

	BIKAIN (9-10)	ONDO (7-8)	NAHIKO (5-6)	GUTXIEGI (0-4)	NOTA (2)
<b>1.- AURKEZPENA ETA DEFENTSA (5 puntu)</b>					
Mintzaira (puntu 1)	Mintzaira argia, akademiko eta erritmo eta doinu egokiek, aurkezpena irakurri ez duelarik.	Mintzaira argia, akademiko darabil, baina erritmo eta doinu egokirik gabea, aurkezpena irakurri	Mintzaira akademiko darabil, baina argitasun gabea, erritmorik gaba eta monokordea, aurkezpena irakurri ez	Lagunarteko mintzaira darabil edo aurkezpena testualki irakurri du.	
Edukia (puntu 1)	Egokia, oso ongi antolatuta eta probatu du gaia ondo menderatzen duela.	Egokia, ongi antolatuta eta probatu du gaia menderatzen duela.	Egokia, ongi antolatuta, baina probatu du gaia gutxi menderatzen duela.	Ezegokia, antolatu gabe eta ez du probatu gaia ongi menderatzen duenik.	
Janzkera eta gorputz-adierazpena (0,25 puntu)	Egokia ekitaldi akademiko baterako eta momentu guztietan oro audientziari ari zaio.	Egokia ekitaldi akademiko baterako eta noizik behinean ari zaio audientziari.	Egokia ekitaldi akademiko baterako, baina ez zaio inoiz aritu audientziari.	Ezegokia ekitaldi akademiko baterako eta ez zaio behin ere mintzatu audientziari.	
Aurkezpena egiteko denbora (0,25 puntu)	Ezarrirako denbora errespetatu du (15 min.).	Ezarrirako denboratik desbideratu da (+ 3 min.).	Ezarrirako denboratik desbideratu da ( $\pm$ 5 min.).	Ezarrirako denboratik desbideratu da ( $\pm$ 7 min.).	
Ahozko aurkezpeneren euskarria: edizioa, letra tamaina, testu kopurua, koloreak irudiak, animazioa (puntu 1)	Eduki egokia eta erlazionatua. Edizio egokia, ikusgarria eta estetiki erakargarria.	Eduki egokia eta erlazionatua. Edizio egokia, ikusgarria baina estetiki ez da erakargarria.	Eduki egokia baina ez behar bezala erlazionatua. Edizioa ez da zuzena izan, ez eta ikusteko erakargarri ere.	Eduki ez egokia eta/edo edizioa ez da zuzena, eskatutako parametroei dagokielarik.	
Mintzairaren eta aurkezpenerako euskarriaren arteko lotura (0,5 puntu)	Erabat komunztatuta egon dira une guztietan.	Uneren batean ez ditu behar bezala komunztatu.	Komunztadura falta agertu du zenbaitetan.	Ez da komunztaturarik egon.	
Lanaren defentsa (puntu 1)	Egokiro erantzun die egin zaizkion galdera guztiei.	Egokiro erantzun die egin zaizkion galdera gehienei.	Egokiro erantzun die egin zaizkion galdera batzuei.	Ez dio egokiro erantzun egin zaizkion galderetako bati ere.	
<b>2.- MEMORIA (puntu 1)</b>					<b>0</b>
Idazkera, gramatika alderdiak eta ortografiakoak (0,5 puntu)	Testu argia eta oso erraz irakurtzekoa, lexiko zuzen eta zientifikoaz. Puntuazio zuzena.	Testu argia eta erraz irakurtzekoa, lexiko zuzen eta zientifikoaz, baina hobe daitekeena. Puntuazio eskasa dokumentuaren atalen batean.	Testu argia baina zenbaitetan galtzen da irakurketaren haria. Lexiko zuzena baina lagunartekoegia. Puntuazio eskasa dokumentuaren atalen gehienetan.	Testu ulertzen zaila. Lexikoa eta puntuazioa ez dira akademikoki zuzenak. Falta ortografikoak ditu.	
Antolaketa eta egitura: Titulua, Egilea, Aurkibidea, Laburpena, Sarrera, Helburuak, Garapena, Ondorioak, Bibliografia (0,25 puntu)	Ezarrirako atal guztiak jaso ditu.	Ezarrirako atalen baten bat falta da.	Ezarrirako atal batzuk falta dira.	Dokumentuak ez du ezarrirako antolaketa eta egitura jasotzen.	
Edizio formal: letra tamaina, marjina egokiak, argazkiak, taulak, irudiak eta eranskin zenbaituak eta legendadunak (0,25 puntu)	Ezarrirako edizio alderdi guztiak jaso ditu.	Ezarrirako edizio alderdiren bat falta da.	Ezarrirako edizio alderdi batzuk falta dira.	Dokumentuak ez du ezarrirako edizio alderdietako bat ere jasotzen.	
					<b>0</b>
<b>AZKEN NOTA (0-6):</b>					<b>0</b>

**GALDERAK ETA PROPOSAMENAK. EPAIMAHAIKIDE BAKOITZAK AURKEZPEN BAKOITZEAN BETE BEHARREKO ERREGISTROA**

Data:  
Epaimahaikidearen izen-abizenak:  
1. Hizlaria:  
.....  
.....  
GrALaren izenburua  
.....  
.....  
.....  
.....

Egin dizkiodan galderak:  
.....  
.....  
.....  
.....  
.....  
.....  
.....  
.....  
.....  
.....  
.....  
.....  
.....  
.....  
.....  
.....  
.....  
.....  
.....  
.....

Hobetzeko egin dizkiodan iradokizunak:  
.....  
.....  
.....  
.....  
.....  
.....  
.....  
.....  
.....  
.....

**7. Irudia** Galdera eta iradokizunen txantiloia, hirugarren entregagaia egin bitartean ikasle bakoitzak bete beharrekoa.

**9. Taula** Jasotako ekarpenen aurrean hartu diren erabakien justifikazio-erregistroa, hirugarren entregagaia amaitutakoan ikasle bakoitzak bete eta entregatu beharrekoa.

<b>Izen-abizenak:</b>	
<b>Data:</b>	
<b>JASOTAKO KRITIKAK EDO EKARPENAK</b>	<b>HARTUTAKO ERABAKIAK ETA ARGUDIOAK</b>

**10. Taula.** 3. Errubrika (R3), hirugarren entregagaia ebaluatzeko.

<b>IKASLEEN PARTE-HARTZEA IKASKIDEEK EGINDAKO AURKEZPENETAN (R3)</b>				
<b>EBALUATUTAKO ALDERDIAK</b>	<b>4</b>	<b>3</b>	<b>2</b>	<b>1</b>
<b>EGINDAKO KALITATEZKO GALDERAK (galderen batezbestekoa, aurkezpen bakoitzeko)</b>	>2 GALDERA	1-2 GALDERA	0-1 GALDERA	0 GALDERA
<b>HOBETZEKO PROPOSAMEN EGOKIAK (proposameneren batezbestekoa, aurkezpen bakoitzeko)</b>	>2 PROPOSAMEN	1-2 PROPOSAMEN	0-1 PROPOSAMEN	0 PROPOSAMEN
<b>JASOTAKO PROPOSAMEN ETA/EDO GALDEREN INGURUKO ARRAZOIKETA</b>	Arrazoiketa ERABAT EGOKIA, jasotako proposamenak/galderak sartu/ez sartu izanaren inguruan.	Arrazoiketa EGOKIA, jasotako proposamenak/galderak sartu/ez sartu izanaren inguruan.	Arrazoiketa ESKASA, jasotako proposamenak/galderak sartu/ez sartu izanaren inguruan, edota onartutako proposamenak aipatu dira, baina ez da justifikatu horiek sartu izana.	Ez da komunikatu inolako erabakirik jasotako proposameneren inguruan.

## LAUGARREN JARDUERA

Laugarren entregagaia GrALaren oroitidazkia egitean datza. Ikasle bakoitzak idatzi beharko du, 15. eta 18. asteen bitartean (3. Taula). Gogorazi behar da ezen 15. asterako dagoeneko burutu direla lehen bi entregagaiak eta horiei buruzko feedbacka jaso dela, eta, horrenbestez, inplikaturako aktore guztien ekarpenak bilduko ditu oroitidazkiak. Une horretatik aurrera, Zuzendariak eta ikasle bakoitzak bi aste izango dituzte (19. eta 20. asteak; 3. Taula) azken oroitidazkian hondarreko zuzenketak egiteko. Behin betiko bertsioa, zeina 20. astean entregatzen den (3. Taula), idazlanaren errubrikarekin ebaluatuko da (R4; 11. Taula). Azken errubrika horrek lanaren edukiarekin lotutako alderdiak ebaluatzen ditu, bai eta lanaren kontu formalak ere.

## 11. Taula 4. Errubrika (R4), laugarren entregagaia ebaluatzeko.

	BIKAIN (9-10)	ONDO (7-8)	NAHIKO (5-6)	GUTXIEGI (0-4)	NOTA (2)
<b>1. ESLEITUTAKO ZEREGINAK, TUTORETZAK ETA EPEAK BETETZE/CUMPLIMIENTO DE TAREAS ASIGNADAS, TUTORIAS Y PLAZOS (0,5 p )</b>					
	Ezarritako alderdi guztiak betetzen ditu	Ezarritako alderdi gehienak betetzen ditu	Ezarritako alderdi gehienak ez ditu betetzen	Ez du lana egin	
<b>2. EDUKIA/ CONTENIDO (2 p )</b>					
Laburpena (0,3 p)	Atal garrantzitsuenak ditu, lanaren ikuspegi orokorra emanez	Egokia da baina hobetu daiteke	Zehaztasuna falta zaio	Nahasgarria da eta ez da egokia	
Sarrera (0,3 p)	Gaia ondo kokatzen du	Egokia da, baina hobetu daiteke	Zehaztasuna falta zaio	Nahasgarria da eta ez da egokia	
Helburuak (0,3 p)	Oso ondo zehazturik	Ondo zehazturik	Ez oso argiak	Ez dira egokiak	
Garapena (0,5 p)	Oso ondo argudiatuak	Ondo argudiatuak	Eskas argudiatuak	Ez da argudiorik ematen	
Ondorioak (0,3 p)	Egokiak eta norberaren ekarpenekin	Egokiak, baina hobetu daitezke	Ez oso argiak	Ez dira egokiak	
Bibliografia (0,3 p): berria eta Vancouver arauak jarraitzen dira. Testuan txertaturik.	Aipamen guztiak	Aipamen gehienak	Aipamen gehienek ez dute araua jarraitzen	Aipamenik ez da erabiltzen edo ez dira testuan txertatzen	
<b>3.- FORMA ALDERDIAK/ASPECTOS FORMALES (1,5 p )</b>					
Idazkera, gramatika alderdiak eta ortografiakoak/Redacción, aspectos gramaticales y ortográficos (1 p)	Testu argia eta irakurtzeko erraza, zientzia-esparruko hiztegi zuzena. Puntuazio zuzena.	Testu argia eta irakurtzeko erraza. Hiztegi zuzen eta zientifikoa, baina hobegarria. Puntuazio eskasa testuan zeharreko atal batzuetan.	Testu oro har argia, baina batzuetan irakurketaren haria galtzen da. Hiztegi zuzena baina arruntzia. Puntuazio eskasa testu osoan zehar.	Testua ulertzeko zaila. Hiztegia eta puntuazioa ez dira arlo akademikorako egokiak. Akats ortografikoak ageri dira.	
Antolaketa eta egitura (0,25 p): izenburua, egilea, aurkibidea, laburpena, sarrera, helburuak, garapena, ondorioak, bibliografia	Ezarritako atal guztiak ditu	Ezarritako atalen bat falta da.	Ezarritako atal batzuk faltan daude	Agiriak ez du ezarritako egitura eta antolaketa jarraitzen.	
Forma-edizioa/Edición formal (0,25 p): Letra tamaina, marjinak, argazkiak txertatzea, taula irudiak eta eranskin zerbakidunak oin edo oinarri egokiekin	Edizio-alderdi guztiak ditu	Edizio-alderdiren bat falta da	Edizio-alderdi batzuk falta dira	Agiriak ez du ezarritako edizio-alderdirik aurkezten	
				<b>AZKEN Nota (0-4):</b>	<b>0,00</b>

### 3.4. METODOLOGIAREN EZARPENAREN BALORAZIOA

Lan honen emaitzarik garrantzitsuena, eta gida hau planteatu izanaren arrazoi nagusia, metodologia bat sortu eta proposatzea izan zen, haren bidez landu eta ebaluatzeko zein neurritan eskuratzen diren, GrALa egin bitartean, zeharkako gaitasunak.

Metodologia honek eskema progresibo bat indartzen du ikasgaiari zehar, gida honetan proposatutako jarduerak oinarri hartuta. Ebaluazio-jarduera horien segimendua eta antolamendua, egiturari dagokionez, Rullán eta lag.-en (2010) proposatutakoaren antzekoa da. Izan ere, hiru aldi bereizten dira biotan: hasiera, segimendua eta amaiera; horietan zehar landu eta ebaluatzen dira zeharkako hainbat gaitasun. Era berean, metodologia honek kontuan hartzen du GrALak beste ikasgaien aldean duen berezitasun bat, hau da, funtsean aurrez aurrekoa ez izatea. Bestetik, ikasleek parte-hartze aktiboa izaten dute gaitasunak eskuratzeko prozesuan. Gainera, ikasleen arteko interakzioa azpimarratzen da, GrALa egiteak eskatzen duen lan autonomoari eragin gabe. Beren aldetik, Zuzendariek eginkizun dinamizatzailea dute, eta, horren bidez, ikasleen interakzio hori sustatzen dute.

Esperientzia honetan, lineako plataforma bat erabili zen (Moodle) elementu zentralizatzaile gisa, eta nabarmendu behar da ezen, lineako plataforma bat eskura ez izatera, koordinazioa eta segimendu jarraitua ez liratekeela bideragarriak. Gisa horretako tresnak erabiltzeak duen abantaila zera da, emaitzen baterako kudeaketa ahalbidetzen duela, zeren aukera ematen baitu ebaluazioen kalifikazioak erregistratuta uzteko (ikasle bakoitzarentzat eta jarduera bakoitzerako).

Online jardueraz gain, aurrez aurreko jarduera kooperatibo bat sartu zen, Gradu desberdinetako ikasleen arteko lankidetzak sustatzeko (askotan, ez zuten elkar ezagutzen ere). Helburua ikasleek gerora egingo zuten ahozko aurkezpena hobetzea zen. Jarduera horrek eta lineako foroak, Gradu bereko ikasleen artekoak, osatzen dute gure metodologiaren jarduera kooperatiboaren gorputza.



Hezkuntza-ekintza honetan bermatu beharreko premisa nagusietako bat ikasleen arteko errefortzu kooperatiboa izan da. Arreta berezia jarri da, batez ere, errefortzu hori titulazio desberdinetako ikasleen artekoa izatean. Modu horretan, planteamendu horrek pertsonarteko trebetasunekin lotutako alderdiak garatzea ahalbidetzen du, ikasleen interakzioa sustatzen baitu, bai titulazio berean, bai titulazio desberdinetan.

Beste aldetik, aitortu beharra dago zenbait ahultasun detektatu zirela proiektuan. Hala, adibidez, guztietan ez ziren bete jarduera bakoitzaren entrega-epeak, nahiz eta, aipatu behar da, inoiz ez zen itxi horiek entregatzeko aukera. Hezkuntza-proiektu honetan parte hartu zuten irakasleek proposatu zuten ezen, etorkizunean, metodologia hau aplikatzen denean, zorrotzagoak izan daitezela jarduerak entregatzeko epeak. Behin ebaluazio-tresna guztiak prest edukita, espero izatekoa ere da erantzun-denborak laburragoak izatea.

Esperientzia berria izan arren, horrek dakarren eragozpenarekin, oso ona izan zen parte hartu zuten ikasleen erantzuna. Hala, Hezkuntza Hobetzeko Proiektua inplementatzean, ikusi zen ezen, prozesua borondatezkoa bazen ere (metodologia ez baitzen ofiziala), ikasleek aktiboki hartu zutela parte jardueretan. Izan ere, batzuen parte-hartze aktibo eta jarraituak besteen motibazioa areagotu zuen. Era horretan, parte-hartzaile guztiek positiboki baloratu zuten planteatutako ekimena, nahiz eta adierazi zuten inplikazio pertsonal handiagoa eskatu ziela, metodologia tradizionalaren aldean. Behin GrALak defenditu eta esperientzia burutu ondoren, jardueraren gaineko ebaluazioak positiboak izan ziren. Hala, galdetu zitzaienean ea metodo hau ondoko ikasturteetan aplikatzea gomendatuko luketen, ikasle gehien-gehienek baiezkoa eman zuten (Etaio eta lag., 2017).

## Bibliografia

- Bonilla, M.J., Laura Fuentes, L., Vacas, C., Vacas, T. (2012) Análisis del proceso de evaluación del Trabajo Fin de Grado en las nuevas titulaciones. *Revista De Educación En Contabilidad, Finanzas Y Administración De Empresas*. **3**, 5.-21. or.
- De Lorenzo, E., Rekalde, I. eta Vaquero, A. (2005) "La formación como investigadores cualitativos a través de un proceso cooperativo". *II Congreso Iberoamericano de Investigación Cualitativa en Salud*. Madrid: 22-25 Junio.
- Etaio, I., Churruca, I., Rada, D., Miranda, J., Saracibar, A., Sarrionandia, F., Lasa, A., Simón, E. Labayen, I. & Martinez, O. (2017). *Cross-curricular skills development in final-year dissertation by active and collaborative methodologies*. *Interactive Learning Environments*, 1-14.
- Hand, L. eta Clewes, D. (2000) Marking the difference: An investigation of the criteria used for assessing undergraduate dissertations in a business school. *Assessment & Evaluation in Higher Education*. **25**, 5.- 21. or.
- Healey M., Lannin L., Stibbe A. and Derounian J. (2013) *Developing and enhancing undergraduate final-year projects and dissertation*. York: HE Academy. Helbide honetan: [https://www.heacademy.ac.uk/sites/default/files/projects/developing\\_and\\_enhancing\\_undergraduate\\_final-year\\_projects\\_and\\_dissertations.pdf](https://www.heacademy.ac.uk/sites/default/files/projects/developing_and_enhancing_undergraduate_final-year_projects_and_dissertations.pdf) [kontsulta: 2016-01-14]
- Healey, M. eta Jenkins, A. (2009) *Developing undergraduate research and inquiry*. York: HE Academy. Helbide honetan: [www.heacademy.ac.uk/assets/York/documents/resources/publications/DevelopingUndergraduate\\_Final.pdf](http://www.heacademy.ac.uk/assets/York/documents/resources/publications/DevelopingUndergraduate_Final.pdf) [kontsulta: 2016-01-14]
- Hill, J., Kneale, P., Nicholson, D., Waddington, S. eta Ray, W. (2011) Reframing the geography dissertation: A consideration of alternative, innovative and creative approaches. *Journal of Geography in Higher Education*. **35** (3), 331.-349. or.
- Jenkins, A., Healey, M. eta Zetter, R. (2007) *Linking teaching and research in departments and disciplines*. York: HE Academy. Helbide honetan: <http://www.heacademy.ac.uk/ourwork/research/teaching> [kontsulta: 2016-01-14]
- Light, G. eta Cox, R. (2001) *Learning and teaching in higher education: The reflective professional*. London: Paul Chapman Publishing.
- López, C. Diez, J.F. Maudes, J. eta Marticorena, R. (2012) Módulo Moodle para Gestionar Trabajos Final de Grado o Máster. *IEEE-RITA*, **7** (3), 155.-162. or.
- MacKeogh, K. (2006) Supervising undergraduate research using online and peer supervision. In Huba, M. (Ed.) *Proceedings of the 7th International Virtual University Conference*.

Bratislava: 14-15 December. Helbide honetan:  
<http://doras.dcu.ie/82/> [kontsulta: 2016-01-14]


- Marshall, S. (2009) Supervising projects and dissertations. In Fry, H., Ketteridge, S. eta Marshall, S. (Eds.) *Handbook for teaching and learning in higher education*. (150.-165. or.). Abingdon: Routledge.
- Martínez, O., Etaio, I., Saracibar, A., Miranda, J., Rada, D., Txurruka, I., Lasa, A., Simón, E. eta Sarrionandia, F. (2015) A practical protocol to improve achievement and evaluation of the cross-curricular skills in the Final Year Dissertation. *Proceedings of the International Congress on Education, Innovation and Learning Technologies*. 21-23 septiembre 2015. Granada.
- Nicholson D. T., Harrison M. E. eta Whalley W. B. (2010) Assessment criteria and standards of the geography dissertation in the UK. *Planet*. **23**, 18.-24. or.
- Pathirage, C.P., Haigh, R.P., Amaratunga, R.D.G. eta Baldry, D. (2007) Enhancing the quality and consistency of undergraduate dissertation assessment: A case study. *The Journal of Quality Assurance in Education*. **15** (3), 271.-286. or.
- Rekalde, I. (2010) How deal the grade work? A problem or an opportunity to complete the development of skills. *Revista Complutense de Educación*, **22** (2), 179.-193. or.
- Rodriguez, I.R. (2011) ¿Cómo afrontar el Trabajo Fin de Grado? Un problema o una oportunidad para culminar con el desarrollo de las competencias/How to deal the grade work? A problem or an opportunity to complete the development of skills. *Revista Complutense de Educación*, **22**(2), 179. or.
- Rullán M., Fernández M., Estapé G. eta Márquez M.D. (2010) The assessment of generic competences in the final year thesis. A preliminary study on the need and opportunity to establish means and tools by fields of knowledge. *Revista de Docencia Universitaria*. **8** (1), 74.-100. or.
- Webster, F., Pepper, D. eta Jenkins, A. (2000) Assessing the undergraduate dissertation. *Assessment & Evaluation in Higher Education*. **25** (1), 71.-80. or.



# ERANSKINAK

## I. ERANSKINA

GrALa egin bitartean zeharkako gaitasunak garatze aldera gida honetan proposatutako metodologia azaltzen duen eskema. Gaitasunak, jarduerak, ebaluazioa eta sostengu-dokumentuak sartzen dira.



\* Ikasle eta Zuzendariaren arteko lehenengo bilera presentziala da. Handik aurrera, biek adosten dutenaren arabera garatzen da metodologia (bilera presentzialak, posta elektronikoa, telefonoa...). Informazioa zehatzagoa jatorrizko iturrian: *Interactive Learning Environments* (2017). Eskuragarri: <http://www.tandfonline.com/doi/full/10.1080/10494820.2017.1283337>

## II. ERANSKINA

Adibide didaktiko hau ikasleen esku jartzen da, lehen jarduera kooperatibo honetan (eztabaida-foroa) zer eskatzen zaien uler dezaten. Egoera eta izenak ez dira errealak.

### ADIBIDEA

#### BIGARREN ENTREGAGAIA BIDALTZEA ETA BESTE IKASKIDE BATEK BALORATZEA:

#### Ikasle baten lehen ekarpena

Kaixo:

Nerea dut izena eta GND Graduoko ikaslea naiz.

Hau izango da nire lanaren izenburua: Haur alergikoentzako menuen kudeaketa AAKPK sistemaren arabera

Helburu orokorra: haur alergikoentzako menuak sukalde zentral batean prestatzeko behar diren prozesuak modu egoki eta praktikoan integratzea, horretarako AKKPA sisteman jasotako janari-segurtasuneko jarraibideei helduz.

Helburu espezifikoak:

- Etorkizunean menuak prestatzeko beharrezkoak diren aurrebaldintzak identifikatzea.
- Aurrera-martxako sistema bat eta fluxu-diagrama espezifiko bat garatzea sukalde zentral baterako.
- Dieta berezietarako menuak diseinatzen jakitea.
- Dauden arriskuen kategoriak identifikatzea.
- AAKPK sistema bat garatzea sukalde zentral batean prestatutako dieta berezietarako.

LANAREN EGITURA:

1. Sarrera
  1. Instalazioen deskripzioa
  2. Eguneroko ekoizpenean kontuan hartzen diren alergia/intolerantzia nagusiak
2. Helburuak

3. Alergikoentzako dietetarako menuen diseinua
  1. Sukalde zentralean eskaintzen diren menu berezien motei buruzko deskripzio orokorra
  2. Menu bereziak prestatzeko fluxu-diagrama orokor baten planteamendua
4. Janari-manipulatzailerak jarraitu beharreko arauak
5. AAKPKren garapena
  1. Prozesuaren etapak
  2. KPKen zehaztapena
  3. Sistemaren berrikuspena
6. Konklusioak
7. Bibliografia

I ERANSKINA. Adibidea. PKP baten kontrol-erregistroa

Zuen ekarpenen zain geratzen naiz, eskerrik asko

Nerea

**Nerea Gómezen proposamenak jasotako erantzuna, 4. Irudiko irizpideak jarraituz:**

---

Kaixo, Nerea:

Zure proposamena aztertu ondoren, honela baloratuko nuke:

1. Kalifikazioa: 3. Nik uste, sukalde zentraletan, dagoeneko edukiko dituzte ezarrita alergenoen kudeaketarako jarraibideak; beraz, gaia ez zait originala iruditzen.
2. Kalifikazioa: 2 ("menuak diseinatzen jakitea" dioen helburua honela aldatuko nuke: ""menuak diseinatzea". "Dauden arriskuen kategoriak identifikatzea", berriz, ez nuke aipatuko helburu nagusi bezala, zeren azken helburuan aipatutako AAKPKren barruan egon beharko luke)
3. Kalifikazioa: 2 (aski espezifikoa da, alergikoentzako menuez ari da)
4. Kalifikazioa: 5
5. Kalifikazioa: 5



6. Kalifikazioa: 3 Oro har, esango nuke egokia dela, baina zuzenketa hau eginda: 3.2 puntua 3. puntutik aterako nuke eta 5.1 puntuaren barruan sartu ("Prozesuaren etapak")

7. Kalifikazioa: 5

8. Askorik ez dakit alergikoentzako menuak AAKPK bidez kudeatzeari buruz, baina, AAKPKri dagokionez, gomendatuko nuke Eusko Jaurlaritzak AAKPK elikagaien industriari aplikatzeari buruz ateratako gida.

9. -

10. Helburuen idazkera, b *item*ean proposatu dudana moduan.

Espero dut nire iruzkinak lagungarriak izango zaizkizula.

Ondo izan,  
Aitor (GNDko ikaslea)

#### **Nerearen erantzuna (Aitorren aurrekoari lotuta)**

---

Kaixo, Aitor:

Eskerrik asko egindako iruzkinengatik. Baliagarriak izango zaizkit lana hobetzeko.

Originaltasunaz diozunari dagokionez, egia esan, praktikak egin nituen enpresako arduradunek berek egin zuten lanaren planteamendua, ez baitute AAKPK sistemarik, ezta generikorik ere, mota horretako menuetarako.

Eskemari egindako aldaketei ondo deritzet. Lanean sartuko ditut.

Aipatu duzun gida hori, EJrena, zein da? Esango al didazu non aurkitu?

Eskerrik asko, zure erantzunaren zain

Nerea

#### **OHARRAK:**

Ikaskideak egindako ekarpenei esker, Nerea lana egokitzen joango da. Beste kide batzuegandik ere jaso ahal izango ditu iruzkinak, Aitorrek egindakoen osagarri.

Zuzendariak batez ere baloratuko dituzte egindako iruzkinak eta horien kalitatea, bai eta emandako argudiaketak ere, bai hobekuntzak iradokitzeke orduan, bai iruzkinak lanean sartu edo ez sartu izana justifikatzeko orduan.

### III. ERANSKINA

Gida honetan proposatutako metodologiari buruz ikasleek zer iritziz duten jakiteko inkestak.

 Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea  <i>GAL-ean gaitasun transbertsalen sustapena ikasketa metodologia aktibo eta kooperatiboan bitartez</i>	<h2 style="margin: 0;">MAK-GAL</h2>  <h2 style="margin: 0;">IRITZI INKESTA (II)</h2>	 Facultad de Farmacia Farmazia Fakultatea
--	--	--

Gratu Amaierako Lanean jarraitzen diren zenbait metodologiei buruz iritzia emateko eskatzen dizugu. Zure erantzunak aztertuko dira, etorkizunean metodologia aktibo eta kooperatiboan bitartez Gradu Amaierako Lanean landuko diren gaitasun transbertsalak hobetzeko. Horregatik, behar duzun benbora hartu zintzoki pentsatzen duzuna adierazteko. Eskerrik asko.

**IKASLEAREN DATU OROKORRAK**

1. **GRADUA**  
 Giza Nutrizioa eta Dietetika     EZT     Ingurumen Zientziak
2. **ADINA**  
 20-22     23-24     25-26     27-28     29-30     >30
3. **SEXUA**  
 Gizonezkoa     Emakumezkoa

**GAL-ren INGURUKO IRITZIAK**

4. **Irakasgai hau interesgarria izan da eta honen ekintzetan gogotsu parte hartu dut.**  
 BAI     EZ     EZ DAKIT
5. **Tutorearekin adostutako bilera guztietara Joan naiz.**  
 BAI     EZ     EZ DAKIT
6. **Orokorrean, beste ikasleekin adostutako bileretara Joan naiz.**  
 BAI     EZ     EZ DAKIT
7. **Zenbat ordu dedikatu dizkiozu GAL-ari?**  
 <50 ordu     50-100 ordu     101-150 ordu     >150 ordu
8. **Nolako izango da dedikatu dituzun orduen banaketa?**  
 -6 hilebeteetan homogeneouski   
 -Hasieran ordu gehiago amaieran baino   
 -Hasieran ordu gutxiago amaieran baino
9. **Ikasgai honen zailtasuna zenbatekoa da?**  
 Oso altua     Altua     Txikia

 <p style="font-size: small;">GAL-ean gaitasun transbertsalen sustapena ikasketa metodologia aktibo eta kooperatiboen bitartez</p>	<h2 style="margin: 0;">MAK-GAL</h2> <h3 style="margin: 10px 0 0 0;">IRITZI INKESTA (II)</h3>	
---	--	---

**GAL-ean LANDUTAKO GAITASUN TRANSBERTSALAK**

Adierazi balorazioa eskala honen arabera: 1=ez nago batere ados; 2= ez nago ados; 3=hala-hola; 4=Nahiko ados nago; 5 =Erabat ados nago; ED= ez dakit zer erantzun.

Badakit zer diren gaitasun transbertsalak.	1	2	3	4	5	ED
GAL-ean zehar gaitasun transbertsalak sakon lantzen dira.	1	2	3	4	5	ED
Gradu amaierako gaitasun transbertsalak ezagutzen ditut.	1	2	3	4	5	ED
Gai baten inguruko informazio berria aurkitzeko gaitasuna daukat.	1	2	3	4	5	ED
Informazioa aztertzeko eta ideak garatzeko gaitasuna daukat.	1	2	3	4	5	ED
Iritzi zientifiko baten inguruan argudiatzeko gaitasuna daukat.	1	2	3	4	5	ED
Jasotako informazio baten aurrean iritzi kritikoa daukat.	1	2	3	4	5	ED
Landutako informaziotik ondorioak ateratzeko gaitasuna daukat.	1	2	3	4	5	ED
Badakit testu zientifikoaren egitura eta erabili beharreko terminologia.	1	2	3	4	5	ED
Gai naiz graduko arlo desberdinetatik jasotako informazioa integratzeko.	1	2	3	4	5	ED
Lan kooperatiboan ondo moldatzeko gaitasuna daukat.	1	2	3	4	5	ED
Ahozko aurkezpenak ondo egiten ditut.	1	2	3	4	5	ED

**JARRAITUTAKO HBP-ari BURUZKO IRITZIA**

Adierazi balorazioa eskala honen arabera: 1=ez nago batere ados; 2= ez nago ados; 3=hala-hola; 4=Nahiko ados nago; 5 =Erabat ados nago; ED= ez dakit zer erantzun.

Gradu Amaierako Lanaren (GAL) testuingurua izan den Hezkuntza Berrikuntza Proiektuaren (HBP) helburua ulertu dut.	1	2	3	4	5	ED
HBPan erabili den metodologia eroso eta lagungarria izango zaidala uste dut.	1	2	3	4	5	ED
HBPan proposatzen den metodologiak gaitasun transbertsalak goragoko maila batean garatzen lagunduko didala uste dut.	1	2	3	4	5	ED
Tutorearen beharra ezinbestekoa izan zait gaitasun transbertsalak hobetzeko.	1	2	3	4	5	ED
GAL-ean landu diren gaitasun transbertsalak beharrezkoak izango ditut aktibitate profesionalerako.	1	2	3	4	5	ED

 <p>Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea</p> <p><i>GAL-ean gaitasun transbertsalen sustapena ikasketa metodologia aktibo eta kooperatiboen bitartez</i></p>	<p><b>MAK-GAL</b></p> <p><b>IRITZI INKESTA (II)</b> 2/3</p>	 <p>Facultad de Farmacia Farmazia Fakultatea</p>
--	---	---

### IRITZI OROKORRA

<p>Metodologia hau proposatuko zenuke datorren ikasturteko GAL-eko ikasleek erabili dezaten?</p>	
<p>BAI</p>	<p>EZ</p>
<p>Aldekarik proposatuko zenuke? Hobekuntzarik?</p>	

## IV. ERANSKINA

Iturri bibliografikoak bilatu eta erabiltzeari buruzko baliabidea (ikasleen esku legoke GrAL egin bitartean).

Gradu Amaierako Lanean zeharkako gaitasunak lankidetzadun bidez garatzea eta era jarraituan ebaluatzea

BIBLIOGRAFIA  
BILATZEKO ETA KUDEATZEKO BALIABIDEAK

Facultad de Farmacia  
Farmazia Fakultatea

UPV EHU

CAMPUSES OF  
INTERNATIONAL  
EXCELLENCE

1

Edukien  
Aurkibidea

1. Bibliografia bilatzeko baliabideak
2. EHU/UPV liburutegiko datu baseak
3. Bilaketa estrategiak
4. Noiz txertatzen da erreferentzia bibliografiko bat
5. Formatu bibliografikoak
6. Vancouver arautegia.
7. Datu base kudeatzaileak
8. Datu base kudeatzaileen abantailak
9. Iturrien inpaktua eta kalitatea
10. EHU/UPV liburutegira sartzeko unibertsitateaz kanpoko sare batetik

Baliabidean esteka honen bidez sar daitezke:

<https://www.slideshare.net/secret/aTJ2yO7eisKota>

**UNIBERTSITATEKO ESKULIBURUAK**  
**MANUALES UNIVERSITARIOS**

**INFORMAZIOA ETA ESKARIAK • INFORMACIÓN Y PEDIDOS**

UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua • Servicio Editorial de la UPV/EHU  
argialetxea@ehu.eus • editorial@ehu.eus  
1397 Posta Kutxatila - 48080 Bilbo • Apartado 1397 - 48080 Bilbao  
Tfn.: 94 601 2227 • [www.ehu.eus/argitalpenak](http://www.ehu.eus/argitalpenak)

eman ta zabal zazu



Universidad del País Vasco    Euskal Herriko Unibertsitatea